



5. liburua

2030 Agenda **V.**

Ekarpena 16. eta
"18". GJHei

Lehendakaritzako
Trantsizio Sozialaren
eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusiak,
2020-2024
Legegintzaldian,
sortutako
dokumentuen
Bilduma

- 1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
- 2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
- 3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
- 4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
- 5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpina 16. eta "18". GJHei
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Kohesio soziala eta nazioarteko elkartasuna
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia





5. liburua

Agenda 2030 **v.**
Ekarpena 16.
eta "18". GJHei

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.

Liburu honen aurkezpena.

1. dokumentua. 16. GJHrako ekarpena. Euskal kasuaren ikaskuntzak Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko.

2. dokumentua. 18. GJHrako ekarpena. Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna.

- 1. liburua.** 2030 Agenda I. Dinamizazioa
- 2. liburua.** 2030 Agenda II. Dibulgazioa
- 3. liburua.** 2030 Agenda III. Gobernantza
- 4. liburua.** 2030 Agenda IV. Jarraipena eta ebaluazioa
- 5. liburua.** 2030 Agenda V. Ekarpena 16. eta "18". GJHei
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala I. Erronka demografikoa
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala II. Gazteria
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala IV. Pandemia

Bilduma honen aurkezpen orokorra

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldia amaitzen zutenak, 2020ko uztailaren 12an egin ziren, pandemia hasi eta bost hilabetera. Irailaren 5ean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak bere kargua zin egin zuen Gernikako Arbolaren aurrean, eta hiru egun geroago bildu zen, lehenengo aldiz, Gobernu Kontseilu berria.

Lehendakariak gobernu-egiturari dagokionez hartutako lehen erabakietako bat izan zen Lehendakari-ritzan Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea. Egitura Organikoari buruzko Dekretuak hiru jarduera-eremu handi ezarri zituen idazkaritza berri honetan: 2030 Agenda, Erronka Demografikoa eta Trantsizio Soziala deitu izan denaren beste eremu garrantzitsu batzuk.

Lehenik eta behin, beraz, 2030 Agenda, eta, zehazki, Euskadik Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa dinamizatzea, koordinatzea eta bultzatzea sailen artean, erakundeen artean eta gizarte mailan. Bigarrenik, erronka demografikoa eta, zehatzago, horri erantzuteko sailen arteko estrategia bat lantzea eta bultzatzea. Eta hirugarrenik, gure trantsizio sozialei eragiten dieten beste erronka garrantzitsu batzuen aurreko erantzunak koordinatzea eta dinamizatzea, hala nola kulturen arteko eta migrazioen arteko bizikidetzeta eta kohesioa, eta, une hartan, pandemiaren eraginari arreta berezia eskainiz.

Une hartan zuen izaera totalizatzailea zela eta, aipamen berezia merezi du 2020ko martxotik 2022ko otsailera bitartean COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizi izan zen egoerak. Larrialdi-egoeraren deklarazioaren ondorioz, 2020ko martxotik, Lehendakariak bere gain hartu zuen LABIren (Larrialdiei Aurregiteko Bidea - Euskadiko Babes Zibileko Plana) zuzendaritza bakarra eta koordinazioa.

Horren ondorioz, sailen arteko eta erakundeen arteko erantzuna zuzentzeko eta koordinatzeko zereginak Lehendakaritzan kokatu ziren, logikoa denez, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lan-kidetzeta estuan. Horiei zegokien erantzuna osasunaren eta osasun publikoaren ikuspegitik bideratzea, euskal osasun-sistema osoaren tresnekin, bai eta funtsezko zerbitzuak emateko ardura zuten gainerako sailekin ere.

Lehendakaritzaren erantzukizun hori babesteko, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak bere gain hartu zuen, 2020ko irailetik 2021eko urrira bitartean, LABIren bi mahaien (tekniko-zientifikoa eta erakunde artekoa) eta Bizi Berri II, III eta IV Planen koordinazio operatiboaren lana. Dokumentu horiek LABIren jarduera-esparru izan ziren, eta Eusko Jaurlaritzaren lan-tresna izan ziren pandemiaren bilakaeraren jarraipena egiteko, prebentzio-neurriak prestatzeko (neurri horiek aplikatzeak gizarte osoari eragiten zion) eta herritarren arteko komunikaziorako eta gardentasunerako.

Idazkaritza honek Legegintzaldi honetan egin duen ibilbidean eragina izan duen beste gertaera bat Lehendakariak 2022ko irailaren 22an Politika Orokorraren Osoko Bilkuran egindako iragarpena izan zen. Une hartatik aurrera, Gazteria Zuzendaritza, ordura arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politi-

ketako Sailaren barruan zegoena, Lehendakartzaren egiturari atxikita geratuko zen, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren barruan.

Hilabete batzuk lehenago, martxoaren 10ean, Gazteen Euskal Legea onartu zen, eta, ekainaren 21ean, Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia. Berregituratze horren helburua izan zen gazteriari, emantzipazioari eta erronka demografikoari buruzko politiken sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, zeharkako ikuspegi batekin, eta lehentasun handiena emanez gazte-politika publikoei.

Bilduma honek ibilbide honi erantzuten dio. Bederatzi liburuen egitura honako hau da:

- 1. liburua.** 2030 Agenda **I. Dinamizazioa.**
- 2. liburua.** 2030 Agenda **II. Dibulgazioa.**
- 3. liburua.** 2030 Agenda **III. Gobernantza.**
- 4. liburua.** 2030 Agenda **IV. Jarraipena eta ebaluazioa.**
- 5. liburua.** 2030 Agenda **V. Ekarpena 16. (bakea) eta "18". (kultura) GJHei.**
- 6. liburua.** Trantsizio Soziala **I. Erronka demografikoa.**
- 7. liburua.** Trantsizio Soziala **II. Gazteria.**
- 8. liburua.** Trantsizio Soziala **III. Gizarte-kohesioa eta nazioarteko elkartasuna.**
- 9. liburua.** Trantsizio Soziala **IV. Pandemia.**

Egiazta daitekeenez, lehenengo bostak 2030 Agendaren esparrukoak dira, eta hurrengo lauek edukia ematen diote trantsizio sozialaren kontzeptuari, lau ikuspegitatik: erronka demografikoa, gazteria, kohesio soziala eta pandemia.

Logikoa denez, lau urtean zehar, gobernuko edozein arloren jarduerarekin lotutako dokumentu-ekoizpena oso zabala da. Honelako bilduma bat osatze aldera, beharrezkoa izan da akotazioren bat ezartzea, luze-zabalerari dagokionez arrazoizkoa denaren mugak ez gainditzeko. Bi irizpide jarraitu dira: lehenik, Idazkaritzak sortutako dokumentuak soilik sartzea, idazketan parte-hartze zuzena izandakoak; eta, bigarrenik, liburu bakoitzari oharren eranskin bat txertatzea, beste dokumentu interesgarri batzuetarako estekekin, Idazkaritzak zuzenean egin ez baditu ere, beren jarduerarekin zerikusia dutenak.

Bestalde, adierazi behar da jarduketa-eremu bakoitzak urte arteko plangintza estrategikoko dokumentu bat izan duela, eta horrek kudeaketa eta bultzada markatu dituela:

- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa, 2021eko ekainaren 29an onartua.
- Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia, 2022ko ekainaren 21ean onartua.

- Bizi Berri II., III. eta IV. Planak, 2020ko urrian, 2021eko otsailean eta 2021eko uztailean onartuak, pandemiaren bilakaerari egokitutako erantzun-tresna gisa.
- Gazteen emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia, 2023ko martxoaren 21ean onartua.

Horri guztiari, trantsizio sozialaren eremuan, ADOS Batzordearen urteko edo urte arteko kudeaketa-planak, Euskarri Estrategia eta Uztartu Programa gehitu behar zaizkio. Dokumentu horiek guztiek segimendu-, balantze- edo ebaluazio-memoriak dituzte, urtekoak zein Legegintzaldikoak, eta bilduma honetako liburu bakoitzaren abiapuntua edo bizkarrezurra dira. Garrantzitsua da hori aipatzea; izan ere, horrela, lan-plan bakoitzaren egituraketan, sistematizazioan eta ebaluazioan oinarritutako kudeaketa-eredu bat ezarri da, plana sortu den aldira egokitua.

Testuinguruari buruzko azken ohar bat nabarmendu behar da. Bilduma hau urte edo hamarkada batzuk barru irakurriko, erreparatuko edo soilik gainbegiratuko balitz, beharrezkoa litzateke 2020tik 2024ra bitartean bizi izan den une historikoaren erreferentzia izatea, interpretazio zehatzagoa egiteko. Lau urte hauetan inoiz ez bezalako aldia bizi izan zen garai historiko honetako belaunaldientzat. Krisi sakonen eta globalen segida batek modu negatiboan baldintzatu zuen pertsona guztien eta herrialde guztien bizitza leku guztietan.

2008an sortutako ekonomia- eta finantza-krisi luze globalaren ondorioei aurre egin behar izan genien. 2020ko martxotik 2022ko otsailera, pandemia baten erdian bizi izan ginen, konfinamendu-aldi luzeekin eta gizarte-bizitzaren funtzionamendu normalaren murrizketa handiekin. Euskadin osasun-larrialdia amaitu eta bi astera, 2022ko otsailaren 24an, Errusiako armadak alde bakarreko inbasio militarra hasi zuen Ukrainan. Ondorio humanitario onartezinez gain, inflazio-igoera bat eragin zuen, eta horrek eragina izan zuen munduko garraioan, elikagaietan, energian eta erregaietan edo industriarako horniduretan.

2023ko urriaren 7an, Hamasek eraso terrorista bat eragin zuen Israelgo herritar zibilen aurka: 1.200 hildako eta 250 pertsona inguru bahitu zituen. Une horretatik aurrera, Israelgo armadaren erantzunak, gerra-bitartekoak erabiliz, milaka eta milaka hildako eragin ditu Gazan, gehienak biztanleria zibila, emakumeak eta adingabeak. Ziurgabetasun geostrategikoa eta nazioarteko ezegonkortasuna indartu egin ziren.

Azken batean, horiek dira bilduma honek 2020-2024 aldian islatzen duen jardueraren testuingurua deskribatzen duten salbuespenezko inguruabarrak eta baldintza kaltegarriak.

Liburu honen aurkezpena

2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuen (bilduma honetako 1. liburuko 1. dokumentua), eta lau lehentasun-ardatz ezarri zituen: (I) Gizarte-dibulgazioa eta herritarren inplikazioa; (II) Koordinazioa eta gobernantza lankidetzan; (III) Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa; eta (IV) Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak. Bosgarren liburuaren izenburua hau da: **“Agenda 2030 IV. Ekarpena 16. (bakea) eta ‘18.’ (kultura) GJHei”**, eta ardatz horietako laugarrenari atxikitako bi dokumentu jasotzen ditu, trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak lehenesten dituena.

Liburu honen **1. dokumentuaren** izenburua hau da: “16. GJHari ekarpena. Euskal kasuari buruzko ikaskuntzak, indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko”. Aipatutako Legegintzaldiko planak zazpi trakzio-konpromiso identifikatu zituen IV. ardatzean, eta beste hainbeste proiektu adierazgarri lotu zituen horiekin. Zazpigarren trakzio-konpromisoa honela formulatu zen: “Giza duintasunaren errespetuan oinarritutako mundu baketsuari laguntzea, bizikidetzaren bidezkoa eta inklusiboa lortzeko”. Hona hemen konpromiso horri atxikitako proiektu adierazgarria.

Ekimen hori garatzeko, txosten bat egin eta zabaldu da nazioartean. Txosten horrek, alde batetik, indarkeria, terrorismoa, zatiketa eta gatazkak direla-eta 50 urtetik atera daitezkeen ikaskuntzak kontzeptualizatu eta egituratuko ditu, eta, bestetik, bakearen eta bizikidetzaren alde gure herrialdean aldi berean egindako ahaleginak. Hori guztia 16. GJHaren ekarpen gisa, eta beste gatazka- eta indarkeria-testuinguru batzuetan kontraste eraikitzailea egiteko pentsatuta.

Euskal kasuaren lehen laburpen-atalaz gain, hamar ikaskuntza eskaintzen dira, hiru jardueraren emaitza egituratuta: indarkeriaren “aurretik”, “bitartean” eta “ondoren”. Dokumentuaren amaieran azken ondorio bat ageri da, laburbilduta: “Etika politikoak politika etikoa dakar”. Lan hori 2023. urtearen amaieran amaitu zen, eta 2024. urtearen hasieratik bakearen, giza eskubideen edo gatazken konponketaren inguruko nazioarteko erakunde eta entitate akademiko guztietara zabaltzen ari da.

2. dokumentuak, "8. GJHrako ekarpena. Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna", jarduera gehigarri baten emaitza islatzen du. Jarduera hori ez dago aurreikusita hasierako plangintzan, eta 2022ko irailan txertatu zen, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak proposatuta. 17 GJHen artean ez da kultura eta hizkuntza minoritarioekin berariaz lotutako helbururik jasotzen. Bai Euskadin, bai planetako beste leku batzuetan, hainbat jarduera egiten ari dira hizkuntza- eta kultura-aniztasunari lotutako 18. GJH bat txertatzeko.

2023an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak prozesu bat jarri zuten abian, Euskadiko testuinguruan 18. GJH baten ideia horri eduki espezifiko emateko. Parte hartzeko bi prozesu paralelo ireki ziren, txosten barenekin, bata kulturaren zentratua eta bestea hizkuntzan, eta, ondoren, GJH berrien proposamen bakar batean bildu ziren.

Prozesu horretan, Elhuyar Fundazioaren eta REDS (Red Española para el Desarrollo Sostenible) sarearen lankidetzaren izan zen, eta kontuan hartu zen Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) arlo horretan izandako esperientzia. Lan bikainaren emaitza izan da 18. helburua definitzea eta hori lortzeko 20 helburuko proposamen bat egitea.

2030 Agendak 17 helburu ditu (18 Euskadin), 169 jomuga (20 gehiago hemen) eta ehunka adierazle. Unibertso luzeegia da, bai kudeaketa integraturako, bai komunikazio pedagogikorako. Trakzio-konpromisoen eta proiektu adierazgarrien panel bat ezartzea jardunbide egokia da, eta Legealdi honetako ondorioetako bat da. Jarraipen bereziko lehentasunak ezartzen laguntzen du, bai eta gizartearekin modu argiagotan partekatzen ere, zehazki zertan datzan 2030 Agenda eta haren GJHak.

1. dokumentua

16. GJHrako ekarpena.
Euskal kasuaren
ikaskuntzak indarkeria
prebenitzeko eta bakea
babesteko

Etika politikoak politika etikoa dakar

Euskal kasuaren
ikaskuntzak
indarkeria
prebenitzeko
eta bakea
babesteko

2030 Agendaren **16. GJ**Hari egindako ekarpena:
Gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea

Euskadi, 2023ko abendua

Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

Lehendakariaren hitzaurrea.

Lehen zatia. Sarrera-esparrua.

I. Abiapuntuak.

- I.1. Dokumentu hau txertatzen den esparrua.
- I.2. "Euskal kasua".
- I.3. Euskadi-Euskal Herriaren kokapena, izena eta lurralde-mugaketa.
- I.4. Aurretiko kontu bat: premisa etikoa.

II. "Euskal kasuaren" laburpena.

- II.1. Sintesi historikoa 1960-2018.
- II.2. Kronologia.
- II.3. ETaren historia.
- II.4. ETaren aurkako polizia-kolpe nagusiak.
- II.5. Su-etenak eta negoziazio-prozesuak.
- II.6. Gizarte-mugimenduak.
- II.7. Hildakoak.
- II.8. Beste erakunde terrorista batzuk.
- II.9. Non egon zen euskal gizartea.

Bigarren zatia. Ikaskuntzak.

III. Prebentzioaren arloko hiru ikaskuntza.

- III.1. Indarkeriara jotzea... hasieratik amaierara akatsa.
- III.2. Metxa piztea erraza da... zaila itzaltzea da.
- III.3. Bidegabekeriaren aurrean... buru *gehiago* eta bihotz *gehiago*.

IV. Indarkeriaren denborari aurre egiteko bost ikaskuntza.

- IV.1. Biktimei *lehenago* begiratzea.
- IV.2. Muga argiekin... *hobe* hitz egitea ez hitz egitea baino.
- IV.3. Giza eskubideak ez urratzea... Estatuak inork baino *gutxiago*.
- IV.4. Gizarteari *hobeto* entzutea.
- IV.5. Indarkeriaren agendaren aurrean... politikaren agenda.

V. Indarkeriaren ondorengo kudeaketarako bi ikaskuntza.

- V.1. Atzera begiratzea... giza eskubideen ikuspegia.
- V.2. Aurrera begiratzea... bizikidetzaren optika.

Epilogo eta azken ondorioa: "Etika politikoak politika etikoa dakar".

Lehendakariaren hitzaurrea

“Munduko ezergatik ere ez, inoiz gehiago ez”

Bost hamarkada pasatxotan, terrorismoa, indarkeria eta zatiketa uztartzeak amesgaizto luze baten trama eratu zuen Euskadin. Gure herria txikia da dimentsio geografikoari dagokionez, 7.200 km² baino gehixeago; eta baita biztanleriari dagokionez ere, 2.100.000 pertsona. Mikrokosmo horretan, 1960tik 2010era, 1.081 biktima hildako egon ziren, horietatik 853 ETAREN terrorismoak eragindakoak, eta gainerakoak eskuin muturreko edo Estatuko estamentuei lotutako beste indarkeria edo terrorismo mota batzuek eragindakoak, gehienak 70eko eta 80ko hamarkadetan.

Gizarte osoarentzako eta lehen lerroan bidegabeko drama hori bizi behar izan zuten belaunaldientzako bizipen traumatikoa da hau. Indarkeria luzaroan pairatzeak antzeko beste gertaera batzuk saihesteko premia handia eragiten die indarkeria jasan zutenei. Hori gure gurasoen eta aitona-amonen belaunaldian gertatu zen, Gerra Zibilean jasandako sufrimenduarekin. Bere mezu unibokoa eta zalantzarik gabea etengabea izan zen: “munduko ezergatik ere ez, gerra inoiz gehiago ez”.

Ordezkatzen dudan belaunaldia 1960aren aurreko eta ondorengo urteetan jaio ginen. ETA frankismoaren garaian sortu zen. Ia bizitza osoan bizi izan gara, eta ezin izan gara karga horretatik askatu. 2018an, azkenean, behin betiko desegin zen. Orain, etorkizunean antzeko zerbait saihesteko premia handia eta arrazoitua dugu. Premia hori komunikatzeko eta gure esperientzia partekatzeko nahian islatzen da.

Asko sufritu dugu. Asko okertu gara. Askotan saiatu gara konpontzen, baina ez dugu lortu. Horrek guztiak ikuspegi partekatu bat ematen digu. Bizitakoaren eta sufritutakoaren ondoren, atera eta bateratu ditzakegun ikaskuntza batzuk ditugu. Dokumentu hau ekarpen hori gauzatzen saiatzen da. Hamar gogoeta eskaintzen ditu indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko, “munduko ezergatik ere ez, inoiz gehiago ez” dadin horrelako zerbait errepikatu.

Lehenik eta behin, barrura begira partekatu nahi dugu. Hausnarketa horren lehen hartzaila gure herriko belaunaldi gazteak dira. Zorionez drama hori bizi izan ez zuten pertsonak. Ikasi duguna ezagutzea gustatuko litzaiguke, bizitzan hartu beharreko erabakietan kontuan har dezaten. Historia hau lehen pertsonan bizi izan genuenon eta dena aurretik daukatenen arteko elkarriketa da.

Bigarrenik, lan honen bokazioa da bakeari nazioartean egindako ekarpen gisa proiektatzea, apalki. 2030 Agendaren 16. helburuari egindako ekarpen gisa proiektatzen da. Zalantzarik gabe, balio handia izango luke sufrimendu bidegabearen hamarkada hauetatik atera ditugun irakaskuntzek munduko edozein txokotan balio izatea indarkeriari aurrea hartzeko eta bakea eta bizikidetzak babesteko.

Puntu honetara iritsita, azken gogoeta bat gehitzea baino ez da falta. Proiektu hau gertatu ziren eta inoiz gertatu behar ez ziren biktimei zuzenduta dago. Ezerk ezin du bete familiek sentitzen duten hutsunea, ezerk ezin die itzuli kendutako bizitza-eskubidea, ezta eskubide horrek duen, eusten dion eta proiektatzen duen guztia ere. Haien ondoan egon gaitzke gogoratzen eta laguntzen. Bidegabekeria izan zela esanez, ezerk ez zuela inoiz bere hurbilekoen bizitzak baino balio handiagorik izan, eta zentzugarrikeria haren memoria kritikoa etorkizuneko pedagogia izatea nahi dugula, mundu bidezkoago eta gizatiarrago baterako.

Aldi berean, lan hau etorkizunean gertatu beharko ez luketen biktimei begira egin da, saihestu beharreko biktimengan pentsatuta. Hilketak eta bizitzeko eskubidea urratzea, azken batean, gizaki batek edo batzuek hartutako erabaki baten ondorioa da. Material honek edozein biktima-eragileri ere zuzentzen zaion hausnarketa sustatzen du; izan ere, azken batean, berak erabaki dezake errepikatzea edo ez errepikatzea, eta hori –hemen esperientziak dakigu– akats izugarria da. Akats itzulezina, hilgarria eta bidegabekeria.

Biktimek ez errepikatzen duten eskubidea, gizarte osoak duena, gizakiok gertatu zaiguna kritikoki aztertzen dugun gaitasunean oinarritu behar da, hobetzen saiatzeko eta egindako akatsak berriz ez egiteko. “Munduko ezergatik ere ez, inoiz gehiago ez”.

Lehen zatia. Sarrera-esparrua

I. Abiapuntuak

I.1. Dokumentu hau txertatzen den esparrua

Proiektu honen muinari buruzko hasierako erreferentzia 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean dago. Plan horrek, bere ekimenen artean, EAEko kasutik ateratako esperientziei buruzko hausnarketa-dokumentu bat egitea jasotzen zuen.

2021ean, Legegintzaldiko aurreikuspen bilakatu zen. Urte hartako ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuen. Laugarren lehentasun-ardatzak zazpi trakzio-konpromiso definitu zituen, eta horiei zazpi proiektu adierazgarri lotu zizkien.

Zazpigarren konpromisoa honela formulatu zen: “giza duintasunaren errespetuan oinarritutako mundu baketsu bati laguntzea, bidezko bizikidetzaren inklusioa baterako”. Konpromiso hori islatzen duen proiektu adierazgarria *The Basque case: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace* izenekoa da (Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak).

Jarduera honen helburua da “bakea, bizikidetzaren, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko nazioarteko ahaleginetan parte hartzea, horien sinergia sustatzea eta giza eskubideen nazioarteko erakundeekin modu egonkorrean lankidetzan aritzea”.

Ezarritako aurreikuspenaren arabera, proiektu adierazgarri hau, Garapen Jasangarrirako Helburuekiko euskal konpromisoari lotua, lan batean gauzatzen da, alde batetik, indarkeriaren, terrorismoaren, banaketaren eta gatazken 50 urtetik ondoriozta daitezkeen irakaskuntza nagusietan sakontzeko; eta, bestetik, gure herrian bakearen eta bizikidetzaren aldealdi berean egindako ahaleginetan sakontzeko. Dokumentu honek aurreikuspen horri erantzuten dio, eta Nazio Batuen Erakundeko Politika Gaietarako eta Bakea Sendatzeko Sailera bidali da baita bakearekin, giza eskubideekin, biktimekin, memoriarekin, gatazken konponbidearekin eta 2030 Agendarekin zerikusia duten nazioarteko eta Nazio Batuen beste instantzia batzuetara ere. Era berean, Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren egoitzan utziko da, Euskadiren ekarpen gisa 16. GJHari.

I.2. “Euskal kasua”

2018ko maiatzaren 3an, ETAK behin betiko desagitea iragarri zuen, 60 urteren ondoren. Bere jarduera terroristaren helburua diagnostiko politikoa inposatzea izan zen, euskal auzibideari dagokionez.

Sei hamarkada horietan, Euskadi diktadura-testuinguru batean bizi izan zen 1975ean Franco diktadorea hil zen arte, eta, testuinguru demokratiko batean, trantsizio-urte batzuen ondoren. 1959 eta 2018 artean, ETAREN zatiketa desberdinen historiaren balantzeak 853 hildako eta milaka zauritu utzi zituen.

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran erakunde terroristar parapolizialak edo eskuin muturreko erakundeak agertu ziren, hala nola BVE, GAL eta antzeko beste batzuk, 74 hilketa eragin zituztenak. Aldi berean, legez kontrako polizia-indarkeriako testuinguruetan hildako gehienak izan ziren, 70 eta 80 pertsona artean. Torturak presentzia handia izan zuen diktaduran. Demokrazian eta giza eskubideen nazioarteko erakundearen arabera, praktika hori ezin da sistematikotzat hartu, ez eta noizbehinkakotzat ere.

Denbora horretan, eta testuinguru horretan, hiru eztabaida sakon nabarmendu behar dira, zatiketaren eragin zituztenak. Eztabaida horiek gainjarri, nahastu, banandu eta elkarren aurka jarri dira. Batetik, ETAREN amaierari buruzko eztabaida; bestetik, Euskal Herriaren eta Espainiako Estatuaren arteko nazio-aurkari buruzko eztabaida politikoa; eta, azkenik, aurreko bien arteko harremanari buruzko eztabaida.

Zer erantzun eman behar zitzaion ETARI amaiera bizkortzeko? Nola ekin behar zitzaion auzi politikoa ebazpenari? Bi gai horiek ba al zuten loturarik? Galdera horiek, beste askoren artean, zatiketa politikoa eta sozial garrantzitsuen xede izan ziren. Estrategia ugari eta askotarikoak garatu, probatu eta alderatu ziren.

Egoera traumatikoen, bidegabekeriaren, sufrimenduen eta zatiketen amalgama horri “euskal kasua” esaten diogu.

I.3. Euskadi-Euskal Herriaren kokapena, izena eta lurralde-mugaketa

Historikoki, elkarrengandik urruntzen diren jarrera politikoak mantendu dira Euskal Herriaren izendapenari buruz (Vasconia, Euskadi, Euskal Herria), lurralde-mugaketari buruz (Euskadi, Nafarroa, Iparralde) edo haren kontsiderazio politikoari buruz (Espainia barruko eskualde bat, nazio kultural bat, estaturik gabeko nazio bat, autodeterminazio-eskubidea duen herri bat...).

Indarrean dagoen esparru juridikoak Euskadi Euskal Autonomia Erkidegoa definitzen du Espainiako Estatuaren barruan. Euskal familia politiko ez-nazionalisten begirada esparru autonomiko honekin identifikatzen da behin betiko aukeratzat edo helmugatzat, eta ez du aurreikusten Nafarroarekin elkartzeko edo konfederatzeko modurik, Espainiako Estatuan, eta Iparralderekin, Frantziako Estatuan. Familia nazionalisten begiradaren arabera, Euskadik autogobernu-maila handiagoak izateko eskubidea du, eta Euskadik eta Nafarroak, Iparraldearekin batera, konfederatzeko moduak aurki ditzakete, hala erabakitzen badute.

1979an onartutako Gernikako Autonomia Estatutuak, lehenengo eta bigarren artikuluetan, honako hau dio, hitzez hitz:

1. artikulua.


Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da; eta Konstituzio eta Estatuto honetan adierazten direnak izango ditu oinarrizko instituzio-arautzat.

2. artikulua.

1. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak eta era berean Nafarroak ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren partaide izateko eskubidea dute.

2. Euskal Herriaren Komunitate Autonomoaren lurraldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialde Historikoez osatuko da, bai Nafarroakoarenaz ere, hauek egungo probintzien mugetan hartzen direlarik; eta baldin eta azkeneko horrek Konstituzioaren laugarren agindu iragankorrean erabakitzen den prozeduraren arabera partaide izatea erabakitzen badu.

Horrela, Euskadi Espainiako Estatuaren barruan dago gaur egun, Autonomia Erkidego bat da, bere Gobernuarekin eta Parlamentuarekin; Nafarroa, berriz, Foru Erkidego bat da, eta honek ere bere gobernu eta legeria propioak ditu; eta, Frantziako Estatuan, Iparralde Akitania Berriko Eskualdearen administrazio-esparruan sartuta geratzen da.



Euskal errealitateari edo Euskal Herriaren errealitateari buruzko eztabaida horretan, ETAk auzibide horri "irtenbidea" aurkitu nahi izan zion, indarkeria eta izua erabiliz bere diagnostikoa inposatuz: Estatuak ETArekin autodeterminazioa eta Euskal Herriko lurralde-batasuna negoziatzea zen aukera bakarra. Gainera, armak erabiltzeari uzteko baldintza zen.

I.4. Aurretiko kontu bat: premisa etikoa

Lan honek lehen lerroetatik azaltzen du bere lehenengo eta azken asmoa. "Euskal kasua" ikuspegi etikotik eta politikotik aztertzen du. Helburua ere ondorio etiko batera bideratzen du, politika etikoaren ondorio batera. Eta hori ez bultzada boluntarista batengatik, baizik eta ekintza politikoak errespetatu behar dituen muga etikoei buruzko akordioa gatazkak prebenitzeko, kudeatzeko, konpontzeko eta eraldatzeko esparru pragmatikoena delako uste sendoagatik. Konpromiso etikoa da txosten honen oinarrian dagoen zeharkako gakoa.

Ikuspegi hori planteatzen da erabat baketsua ez dela jakinda. Batzuek uko egiten diote begirada etikoari, gatazkak aztertzeko eta eraldatzeko tresna nagusi gisa. Haien ustez, ikuspegi etikoa, nolana ere, bigarren mailako tresna da, ikuspegi politiko hutsaren edo metodologiko hutsaren mendekoa edo haren osagarria, edo, bestela, "teologikoa" edo erabilera hertsiki intimo eta pertsonala duena, erabilgarritasun politikorik gabea.

Gatazken errealitatea aztertzeko modu horien arabera, funtsezkoa da analisi "politiko" hutsa eta gatazka baten testuinguruan dauden indarren eta interesen harremanaren azterketa egitea, edo, batez ere, bitartekaritza-metodologia egokiak edo gatazka kudeatzeko estrategia eraginkorrak aplikatzea. Orrialde hauetan ez da zalantzan jartzen analisi politikoak eta indar-harremanenak edo bitartekaritza-metodoek zalantzarik gabe eragiten dutela gatazka baten bilakaeran. Baina hemen gehitu nahi da, faktore horiez gain, gako etikoak ematen zaiona baino ahalmen handiagoa duela.

Gatazka suntsitzailea indarkeriak eragiten duen gatazka da. Gatazka eraikitzailea hura modu bake-tsuan kudeatzeko bideak aurkitu dituen gatazka da. Gatazka suntsitzaile-bortitz batean "denak balio du" da nagusi. Hau da, mugarik ez duena erabili beharreko baliabideetan. Garrantzi txikiko ikuspegia da. Gatazka eraikitzaile-baketsu batean mugak (etikoak) ezarri dira egin behar ez denari buruz. Garrantzi handiko ikuspegia da.

Gatazka batean garrantzi handiagoa edo txikiagoa izatea norberari mugak ezartzeko gaitasuna da. "Denak balio du" gizakiaren oinarritzko kontzepzio bati erantzuten dio. "Denak ez du balio" giza izaeraren ikuskera garatu bati erantzuten dio non pertsonak, gizakiak, kontzienteki aukeratzeko gaitasuna duen. Haratago doa, hau da, bulkada gainditzen du eta zer muga ez dituen gainditu nahi erabakitze eta aukeratzeko gai da.

Begirada etikoak zerbaitetarako balio duen erdeinuarekin galdetzen dutenen aurrean, txosten honen erantzuna da horrek adierazten duela balio handiena gatazka suntsitzaile bat gainditzeko orduan. Edo denak balio du jarrera bat defendatzeko, edo denak ez du balio, muga batzuk ez direlako gainditu behar.

Konpromiso etikoa da, ziurrenik, antidotorik onena erregimen totalitario baten aurrean. Munduan gehien miresten eta proiektatzen diren prozesu historikoetako bi dira, hain zuzen ere, Gandhi eta Mandela buru dituzten indarkeriarik gabeko borroka-prozesuak. Bi prozesu garrantzitsu dira, muga etiko irmoak eta ezagutzeko modukoak ezarri baitzituzten.

Gatazka giza izaeraren berezkoa da. Ezin da ukatu, ahalik eta ondoen onartu eta kudeatu behar da. Ezinbestekoa da balio-ordena hausnartua eta egituratua izatea. Lehenengoa zer den galdetzea da lehenengoa. Eta galdera hori, funtsean, etikoa da. Zer da lehenengoa: giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetua edo kausa baten defentsa ideologikoa. Bidegurutze horretan dago gatazka baten "guztiaren" abiapuntua. Horretan datza "euskal kasuari" begirada etikoa ematea.

Euskadin zer gertatu zen eta zer gertatu zitzaigun diagnostikatzerakoan, funtsean, hasierako akats batera jo behar dugu, balio-desordena batera, zeinak 60ko hamarkadan bere egin baitzituzten mugimendu politiko gazte eta antifrankista bateko liderrek, izaera marxista, sozialista eta/edo komunistako kide nazionalista eta iraultzaileekin. Hasierako errore hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen joan zen hainbat hamarkadatan.

Berrogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, Francoren diktadurak adierazten zuen bidegabekeria -testuingurua, eta hirurogeiko hamarkadan, hori eta mugimendu iraultzaileen eta askapen nazionalaren albisteak. Mugimendu eta askapen horiek, berrespen-erreferentzia gisa, nazioarteko testuingurutik zetozen, eta, ondorioz, "borroka armatuaren legitimitatearen eta erabilgarritasunaren" sinesmena berraztertu zuten.

Ernamuineko akats hura indarkeriara jotzeko autojustifikazioko bi argudiorekin elikatzen zen:

·Bidegabekeria handiago baten biktima gara, guk eragin dezakeguna baino lehenagokoa, gure indarkeria erantzuna baita. Geure burua defendatu besterik ez dugu egiten.

·Bidegabeki kendutako eskubideen jabe gara. Zuzenbideak eta arrazoiak zilegitasuna ematen digute baliabide ez-etikoetara jotzeko, hala nola indarkeriara. Ez dugu beste aukerarik.

Horrela, indarkeria saihestezintzat jotzen zen, baina egia esan hori ez zen horrela. Egindako hautua agian hartu eta eutsi izan ez zitekeen aukera da.

Esan daiteke abiapuntu horrek orduan "erantzunezko indarkeria" deiturikoan jartzen duela fokua txosten honek, eta ez haren "zergatian", argi eta garbi bidegabekeria eta bortitza izan zen diktadura frankista bezalako sistema batean. Ez dugu eztabaidatuko, eta, horrez gain, 40 urtez luzatu zen erregimen frankistaren oinarri izan zen bidegabekeria, zapalkuntza eta indarkeria irmotasunez berretsiko ditugu.

Diktadura hark izan zuen deskalifikazio etiko eta politiko oro motz geratzen da. Ezarrita gera dadila hemen planteatu daitezkeen gogoeta etiko guztiak aplikagarriak direla boterearen babesean egindako edozein erregimen bortitzen eta antidemokratikoren ezarpen sistemikoaren parte diren pertsonen eta taldeen.

Hala ere, "euskal kasuari" berezitasuna ematen dion elementua honako hau da: diktaduran sortutako mugimendu politiko batek bere estrategiarekin batera indarkeriazko jarduera bat egitea, jarduera hori hamarkadatan luzatzea, azken laurak demokrazian, indarkeria hori gizarte-babesaren oinarri esanguratsu batekin erabiltzea, eta are gehiago, Euskal Herri "osoaren" izenean eta ordezkartzean gauzatzea.

"Euskal kasuan", auzi politiko bat egon da ebatzi gabe, Ajuria Eneko Itunak aitortu zuen bezala. "Euskal kasuan", gertaera bereizgarria da gizarte horren zati batentzat onargarria izatea auzi horri indarkeriaren bidez aurre egitea eta erabaki horri luzaroan eustea. Gertaera bereizgarri hori da "euskal kasuaren" ikaskuntzei buruzko txosten honen abiapuntua.

Abiapuntua da. Hala ere, indarkeriaren baliabidea, une batzuetan edo besteetan, eta intentsitate batekin edo bestearekin, ez zen ETaren baliabide eskusiboa izan. Kontuan hartu behar da 70eko eta 80ko hamarkadetan 150 hildako inguru eragin zituztela erakunde terrorista parapolizialek eta eskuin muturreko erakundeek edo legez kanpoko polizia-indarkeriako testuinguruetan.

Txosten honek, begirada etiko beretik, garai hartan terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa larria eragin zuen guztia jorratuko du. Bere ikaskuntzen proiektzioa ez da mugatuko ETak ekarri zuenera bakarrik, baizik eta, gure esperientziaren arabera, indarkeria prebenitu eta bakea babestu dezaketen faktore eta jarrera guztietara

Aurreko guztia esanda, eta laburpen gisa, lan honen abiapuntuko hipotesia da konpromiso etikoa, hau da, ekintza politikoaren muga etikoei buruzko akordioa muineko kontua dela. Gatazka batean eztabaida horri lehenbailehen aurre egitea da gatazkak prebenitzeko, kudeatzeko, konpontzeko edo eraldatzeko biderik onena. Giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetua gutxienezko muga etiko horien oinarrian dago, eta muga horiek konpromisoak dira.

Hau ez da txosten neutral bat edo bitartekaritza-ikuspegi batekin egina. Giza eskubideen eta aniztasunaren aldeko txosten zentratua eta kokatua da, dena kokatzen duten balioak diren aldetik. Giza eskubideak xedaezinak dira.

II. “Euskal kasuaren” laburpena

II. puntu honetan txertatzen den testua prozesu eztabaidatu eta parte-hartzaile baten emaitza da. Ia hitzez hitz, Herenegun Unitate Didaktikoaren I. Koadernoaren edukian oinarrituta dago, “Sarrerako esparrua, ikuspegi historiografikotik” izenburua daramana. Unitate didaktiko honek *oraintsuko memoriari* dagokion aldia (1960-2018) Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko historia ikasgai txertatzeko proposamena eskaintzen du.

Dokumentu hau Juan Pablo Fusi, Mari Carmen Garmendia eta Mariano Ferreren laguntzarekin eta aholkularitzarekin egin zen. Fusi historialari ospetsua da, Espainia garaikidearen historian eta, bereziki, Euskal Herrian eta nazionalismoetan oinarritua. Garmendiak, azken hamarkadetan, erantzukizun-kargu garrantzitsuak izan zituen EAEko erakunde sozial eta politikoetan, batez ere kultura-esparruarekin lotuta. Ferrer kazetari ezaguna (2019an hila), azken 50 urteetan gertatutakoaren lekuko eta kronista independentea izan zen.

Adinaren, lanbide-esperientziaren eta ibilbidearen arabera, gure herriaren azken aldiko historiari dagokionez baimendutako hiru ahots irudikatzen dituzte, baina horrek bezala, sentsibilitate eta begirada ugari biltzen dituzten hiru ahots irudikatzen dituzte.

Fusi, Garmendia eta Ferrer autoreek egindako oinarritzko testu hura eta Herenegun material didaktiko osoa eztabaida publikoko prozesu bizi batean sartu ziren 2018ko irailetik 2019ko urtarrilera bitartean. Gure iragan hurbilari buruzko hausnarketak eztabaida sutsuak piztu zituen, eta sentsibilitateak eta sentiberatasun aurkakoak ukitu zituen.

Hilabete horietan, Eusko Jaurlaritzak materiala jendaurrean jartzeko aldi bat ireki zuen, ekarpenak jasotzeko. Prozesu horren ondorioz, guztira 134 aldaketa gehitu zitzaizkion dokumentuari. Ondoren aurkezten den testua azkenean adostasun pluraleko zentzuzko maila lortu zuen prozesuaren emaitza da.

II.1. Laburpen historikoa 1960-2018

Francoren diktadura (1939-1975), II. Errepublikaren aurkako kolpe militarrek eragindako gerra zibilean sortua, Euskal Herriaren errepresio politiko eta kulturalaren, zentralizazio politikoaren eta espainolizazio linguistikoaren aldi luzea izan zen, eta bere erara Bizkaiko eta Gipuzkoako hazkunde ekonomikoa, industria eta demografikoa eragin zuen, 1960tik aurrera Arabara eta Nafarroara zabalduz hazkundea.

EAEko desarrollismo berri eta biziak albo-ondorio oso negatiboak izan bazituen ere –eskualdeen arteko desoreka handiak, “monolaborantza” sidero-metalurgikoa, hiri- eta industria-pilaketa handia eta ingurumenaren degradazio larria Bizkaiko eta Gipuzkoako eremuetan–, EAEko eta Nafarroako BPG % 210,1 hazi zen 1955etik 1975era bitartean.

1940 eta 1975 bitartean, 468.295 pertsona etorri ziren Euskadira. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak 955.764 biztanle zituzten 1940an, eta 2.072.430 1975ean. Bilbok 202.531 biztanle zituen 1940an eta 431.071 1975ean; Gasteiz 42.116tik 170.870era pasa zen; Donostia 105.775etik 165.829ra.

Euskal gizarteak eraldaketa berriak izan zituen. 1960tik, Euskal Autonomia Erkidegoa industria- eta hiri-gizartea zen, bizi-maila handikoa, deslandatze-maila handikoa, gero eta sekularizazio handiagokoa, soldatapeko eta fabrikako biztanleriaren proportzio oso handia, eta gero eta enpresa eta zerbitzu profesional eta koadro tekniko gehiago zituen.

ETA agertzea

Eredu frankista –desarrollismo ekonomiko bizia, oparotasun materiala, migrazio-prozesu berriak, hiri-gizartea, asimilazio linguistiko eta kulturala, errepresio politiko, sindikal eta kulturala– euskal gaia orain hondar bat zela pentsarazi zuena hautsi egin zen 60ko hamarkadan: ordutik Bizkaian eta Gipuzkoan lan-gatazka ugari izan zirelako, eta, batez ere, 1958an ETAREN (Euskadi Ta Askatasuna) lehen

nukleoa klandestinitatean sortu zelako, hau da, urte gutxitan, Euskal Herria “aske uzteko” eta independentzia lortzeko estrategiaren funtsezko tresna indarkeria izango zuen erakundea.

ETAren agerpenak –euskal nazio-askapenerako mugimendu izendatu zena eta hainbat zatiketa jasan zituen, garrantzitsuena 1974an ETA militarren eta ETA politiko-militarren artean egindako zatiketa–aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen euskal nazionalismoak historikoki izan zuen esanahian.

Euskal nazionalismo historikoa ez bezala, Eusko Alderdi Jeltzalea, alderdi sozial, kristau eta demokratikoa, Espainiako Estatuaren barruan Euskal Herri autonomo bat onartzeko borondatea erakutsi zuena, ETA –60ko hamarkadako ETA, klandestinitatean eta erbestean zegoen EAJri pasibotasuna leporatzen zion nazionalismoaren inguruko gazteen belaunaldien matxinada handiaz izan zuena– erakunde erradikalak zen, ideologia marxistizatzailea zuena, Euskal Herria Espainiatik eta Frantziatik erabat bereizi nahi zuena, eta indarkeriatik independentziarako bidea egiten zuena.

ETAren lehenengo atentatu hilgarria 1968ko ekainaren 7an izan zen. Txabi Etxebarrietak, lehenengo ETAko lider eta ideologo nagusiak, José Antonio Pardines guardia zibila hil zuen Adunan; Guardia Zibilak ordu batzuk geroago Etxebarrieta eraitsi zuen Tolosan. ETAk berrogeita hiru pertsona hil zituen 1968 eta 1975 bitartean; horien artean, 1973an, garai hartako diktadurako gobernuko presidente Luis Carrero Blanco.

ETAren ekintza kiribilduaren ondorioak –errepresio gogorra eta bereizi gabea– bereziki bi unetan geratu ziren agerian: batetik, 1970eko abenduan Burgosko prozesuaren aurkako euskal iritziaren mobilizazio zabalean, non ETAko zenbait kide heriotzara kondenatu baitzituzten, zigorrak konmutatu zituzkieten, hein batean erregimen frankistaren gaineko nazioarteko presioagatik; eta, bestetik, urte batzuk geroago, 1975eko irailean, erakundeko bi kide fusilatu zituzten, Juan Paredes Manot eta Angel Otaegi (FRAPeko hiru kiderekin, Espainiako ezker muturreko talde batekin, fusilatu zituzten).

ETAren indarkeriak euskal auziaren izaera bera aldatu zuen. Nahiz eta EAJ, diktaduraren ondoren berpiztuta, euskal nortasunaren kontzientziaren berpizte hura 1975etik aurrera kapitalizatu, Franco hil eta demokrazia berrezarri ondoren, ETA eta terrorismoa Euskadin izaera antifrankistako mugimendu alternatibo baten erreferente bihurtu ziren, eta hala izaten jarraituko zuten Trantsizioan eta demokraziaren lehen urteetan.

Carrero Blancoren atentatua ez zen gertaera ikusgarria eta harrigarria izan, Carreroren nortasunagatik eta atentatua egiteagatik; aitzitik, ETAko militanteen belaunaldi berri batek Burgosko Epaietaren (1970) ondoren diseinatutako strategiari erantzun zion: Espainiako Estatuaren aurkako bide militarren estrategia, ETAren erabateko militarizazioa (ETA militarra: indarkeriari erabateko lehentasuna ematea; ETA politiko-militarra: masen borroka ekintza militar osagarriarekin). Hau da, indarkeria askapen- eta independentzia-prozesuaren beharrezko faktore gisa.

Diktaduraren eta amnistiaren ondoren, demokraziarekin, Euskadi Autonomia Erkidegoan *eraldatzea* espero ahal izan zen, eta horrek berehala bakegintzea eta normalizatzea ekartzea. Ez zen hala gertatu. ETA eta hark eragindako gatazka izan ziren espainiar demokrazia berriak aurre egin behar izan zion arazo nagusia.

Indarkeriaren gorakada

Demokraziarako trantsizioak, 1975etik aurrera, bi prozesu gainjarri zituen Euskadin:

- autogobernu-maila handia itzultzeko prozesu politikoa;
- ETAren indarkeria terroristaren gorakadaren eta ezkerreko independentismoaren igoera politikoaren prozesua, 1978ko apirilaz geroztik Herri Batasunak, ETAren (ETA militarren) besotzat hartzen den alderdi-koalizio batek, enkargatua.

Prozesu autonomikoa 1979an gauzatu zen, Euskal Autonomia Erkidegorako Estatutu berria onartu zenean; ETAk (haren adar eta antzeko talde desberdinek) 853¹ pertsona hil zituen, 2011. urtera arte, 3.000 ekintza terrorista inguru egin zituen, 82 pertsona bahitu zituen eta 10.000 inguru estortsionatu

¹ Iturria: Barne Ministerioa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa, Terrorismoaren Biktimen Elkartea eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia.

zituen (Zerga iraultzailea); 5.000 pertsona inguruk eskoltarekin bizi behar izan zuten 1990 eta 2011 bitartean, jazarpen-indarkeria deritzonaren ondorioz.

Hamarkada horietan guztietan, bestalde, ETako eta hurbileko taldeetako 150 kide inguru hil ziren edo segurtasun-indarrekin liskarretan hil ziren, edo beren lehegailuak lehertzean, edo beren buruaz beste egiteagatik edo argitu gabeko inguruabarrengatik, eta 3.300 pertsona inguru espetxeratu zituzten.

1979ko Autonomia Estatutuak Euskadiri eman zion –gizarte plurala, aldi berean nazionalista eta ez-nazionalista, eta lurralde- eta udal-mailako oreka politiko desberdinekin, 2009ra arte EAJk gobernatua (Carlos Garaikoetxearen gobernuak, 1980-85; José Antonio Ardanza, 1985-99, PSE eta ERekin koalizioan; Juan José Ibarretxe, 1999-2009, EA eta EBrekin koalizioan)– bere historiaren autogobernu-mailarik handiena: gobernu unitarioa, Legebiltzar propioa, Kontzertu Ekonomikoa, Batzar Nagusiak probintzia bakoitzerako (orain, foru-lurraldeak), eskumen zabalak zergen, hezkuntzaren, unibertsitatearen, ordena publikoaren (Ertzaintza, euskal poliziaren kidegoa, 1981ean sortua), osasunaren, garraioaren, komunikazioen arloetan, telebista eta irratia barne.

ETak prozesu autonomikoa desegonkortu nahi izan zuen, metodo bortitzak erabiliz: erakunde independentista eta askapen nazionalerako erakunde gisa, ETak ez zuen onartzen autonomia (Euskadi eta Nafarroa erkidego desberdinak zirela) euskal gizartearen zati handi baten asmo nazionalisten konponbidea izatea. Joaquin Imaz Martinez polizia-komandantea izan zen, 1977ko azaroaren 26an, ETak Nafarroan hildako lehen pertsona.

Estrategia horrek bere mugimendu politikoari hauteskundeetarako eta gizarterako ezinbesteko oinarria eman zion, batez ere Gipuzkoan. Nafarroako zenbait enklabeetan ere ezker abertzalea lurraldeko lehen indar nazionalista bilakatu zen.

Estrategia horrek –funtsean: terrorismoa, indarkeria, beldurraren presioa euskal gizartean; batzuetan: herri-arrazoi batzuen defentsa, hala nola Lemoizko zentral nuklearraren aurkako borroka– demokrazia-aren jarduna bera desitxuratu zuen:

- Izan ere, nahiz eta inoiz ez izan gaitasunik Espainiako estatuaren eta poliziaren gaineko garaipen militar bat lortzeko, eta, beraz, berea higadurazko terrorismoa izan zen, ETak (hau da, ETAm-k eta ETApm-k, 1981ean indarkeria utzi zutenak eta Eduardo Moreno Bergareche *Pertur* lider nagusia Hendaian desagertu zenak, 1976an, inoiz argitu gabeko krimen bat) ordena publikoko indarren (Ertzaintza barne) erronka ia iraunkor batean jarraitu zuen.

- ETAren eta antzeko taldeen adarrek 303 lagun hil zituztelako 1976tik 1981era bitartean, eta 471k 1982tik 2000ra bitartean. 1980 izan zen urte txarrena: 96 hildako². Hipercor supermerkatuaren aurkako atentatua, Bartzelonan, 1987ko ekainaren 19an, ekitaldi odoltsuena izan zen: 21 hildako, 46 zauritu.

ETAren estrategia terrorista, laburbilduz, honen emaitza izan zen:

- ETAren ikuskera estrategikoa (sendoagoa eta iraunkorragoa ETA militarrean) Euskal Herriaren independentziarantz eta indarkeriaren bidez euskal boterea ustez lortzerantz;

- bere planteamendu independentistak mehatxatzen zituen prozesu konstituzional eta autonomikoak porrot eginarazteko erabakia, teorikoki helburu finalista gisa;

- ETak Espainiako Gobernuarekin zuzeneko negoziazioa (ETArentzat garaipen politiko eta militarra izango zena, Euskadiko “botere faktikoa” bilakatuko zuena) behartzeko borondatea, ETak berak emandako baldintzetan, lehenik eta behin, 1978ko otsailean, “KAS Alternatiban” (amnistia, alderdi politiko guztiak legeztatzea, ordena publikoko indarrak Euskaditik kentzea, langileen bizi-baldintzak hobetzea, Nafarroa integratzea), eta gero, 1995eko apirilean, “Alternatiba demokratikoa”: autodeterminazioa eta lurraldetasuna, hau da, Euskal Herriko lurralde-batasuna (Euskadi, Nafarroa, Iparraldea).

ETak ez zuen onartzen bere planteamenduetatik inolako desbideratzerik. 1986ko irailean Yoyes (Dolores González Katarain) hil zuen. Karguetatik libre zegoen erakundeko buru ohia zen, eta bere jaioterrira, Ordiziara, itzuli zena: indarkeriari uko egin ondoren gizarteratzea aurreikusten zuten militanteei ohartarazpena.

1976 eta 2001 bitartean, ETAko 114 kide inguru hil ziren Poliziarekin izandako liskarretan (edo istripu propioen ondorioz). Terrorismoaren aurkako borrokak "gerra zikinaren" metodoak erabili zituen: talde paramilitarren artikulazioa, torturaren erabilera eta giza eskubideen beste urraketa modu batzuk (Eusko Jaurlaritzaren enkarguz, IVAC-KREIk egindako txosten batean, torturen edo tratu txarren 4.113 salaketa egon zirela jaso zen).

Triple A, GAE, Batallón Vasco Español eta antzeko taldeek 46 pertsona hil zituzten; horien artean, 1977ko abenduan, *Argala*, ETAko buru nagusietako bat eta Carrero Blancoren aurkako atentatuaren arduraduna; Grupo Antiterroristas de Liberación (GAL), 28 pertsona: ETAko 16 kide ihesi eta 12 zibil (horien artean, HBko buru Santiago Brouard).

Gertakari horietako batzuetan parte hartzeagatik kondenatu zituzten Amedo eta Domínguez poliziak, José Barrionuevo Barne ministroa, Enrique G. Galindo Guardia Zibileko jenerala, Rafael Vera Segurta-suneko Estatu idazkari ohia, Julen Elorriaga Gipuzkoako gobernadore zibila, Julián Sancristóbal Bizkai-ko gobernadore zibila, eta *haien* laguntzaileak.

"Gerra zikinak" onespena, adostasuna edo, batzuetan, konplizitatea aurkitu zuen Estatuko estamentuekin lotutako sektoreetan, eta, jatorria eta izaera kontuan hartuta, Estatuaren politika kontraterroristaren zilegitasuna bera mehatxatu zuen. Hori ez ezik, 80ko hamarkadan, aurreko urteetan errepresioak, torturak edo Triple A edo BVEren atentatuak eta, bereziki, 1987ra arte iraun zuten GALen hilketek utzitako arrastoak ere lagungarri izan ziren gertakarien ikuspegia aurrez aurreko indarkerien dinamika gisa elikatzeke, eta, horren ondorioz, militantzian eta ETAREN babesean belaunaldi-erleboia bultzatzeko.

GALek ETARENTZAT 80ko hamarkadan izan zuten berpizte-efektua, hain zuzen ere, ETAPm desegin berria zenean eta ETAM-k, atzerapenez bada ere, urrats berak egin ahal izango zituela aurreikus zitekeenean gertatu zen. Terrorismo horrek, ETA ahuldu ez ezik, indartu ere egin zuen. Haren ondorioek eztabaida politikoan, mediatikoan eta juridikoan eragiten jarraitu zuten urte asko igaro arte, prozesu judizialen, espetxeratzeen, indultuen eta horrek guztiak sortu zituen erreakzioen harira.

Izan ere, indarkeriak gainditu egin zuen euskal trantsizioa. Euskal ekonomiak 1975. eta 1985. urteen artean jasango zuen krisi larriarekin batera –XX. mendeko krisirik okerrera, Bilboko itsasadarreko siderurgia- eta itsasontzi-industriaren gainbehera katastrofikoan sinbolizatu zena–, badirudi indarkeriak kolapso moralera eta ekonomikora eramanez zuela Euskadi. Euskadik biztanleak galdu zituen lehen aldiz mende osoan. 1975. eta 1992. urteen artean, 110.000 pertsona inguruk emigratu zuten Euskaditik. EAEko per capita errenta % 10 jaitsi zen 1975. eta 1985. urteen artean. 1975ean, langabezia biztanleria aktiboaren % 1,76ri soilik eragin zion (14.000 pertsona inguru), eta 1985ean % 23,62ra iritsi zen (188.300 pertsona).

Literaturak, zinemak eta entseguak oso goiz erakutsi zuten bezala –adibide batzuk: R. Saizarbitoriaren *Ehun metro* eleberria, R. Guerra Garridoren *Lectura insólita de El Capital*, eta B. Atxagaren *Gizona bere bakardadean* eleberria; *Toque de queda*, *Operación Ogro*, *La fuga de Segovia* eta *La muerte de Mikel* bezalako filmak; M. Escuderen *Euskadi: dos comunidades*, J. Aranzadiren *Milenarismo vasco*, G. Jaúreguren *Ideología y estrategia política de ETA*, P. Unzuetaen *Los nietos de la ira*, J. Arregiren *Euskadi invertibrada*, J. Juaristiren *El bucle melancólico*, F. Savaterren *Contra las patrias*, F. Letamendiaren *Hª del nacionalismo vasco y de ETA* eta M. Azurmendiren *La herida patriótica* bezalako liburuak– ETAREN terrorismoak euskal gizartearen dilema moral sakonak sortu zituen.

1936tik aurrera, eta diktadura osoan, Eusko Jaurlaritzak, lehenik Agirre Lehendakariarenak eta gero Leizaola Lehendakariarenak, erbestean jardun behar izan zuen, zorigaitzoko baldintzetan. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak bizirik eutsi zion euskal erakundeen legitimitateari. Erakunde demokratikoak berreskuratu arte, euskal autogobernuaren borondatearen jarraipena izan zen, Gernikako Zuhaitzean sinbolizatuta. ETAk gutxietsi eta mespretxatu egin zuen erakunde historiko haren eta honen ordezkariaren balioa eta garrantzia. Hori da abiapuntuko testuingurua.

“Euskal kasuan”, prebentzioaz hitz egitea ETaren hastapenetan kokatzea da, frankismo garaian. 1958an sortu zen, baina bere lehenengo atentatu hilgarria ez zen gertatu 1968ra arte. Urte horretatik 1978ra, ETA bere ibilbidea hasten joan zen. Aldi horretan, esan liteke prebentzio-ekintzaren bat egon izan zitekeela fase hartan, gerora sendotu izana saihesteko. Lehen atal honetan, atera daitezkeen hiru ikaskuntza handi nabarmenduko ditugu. Lehenengo biak indarkeriaren sedukzioa bidegabekeriari aurre egiteko baliabide gisa sentitzen duenarentzat dira. Hirugarrenak erakarpen horretatik kanpo daudentzako hausnarketa planteatzen du.

III.1. Indarkeriara jotzea... hasieratik amaierara akatsa

Mundua, gizartea, bizikidetzak eta harreman sozialak, politikoak, lanekoak, ekonomikoak, erlijioen artekoak eta kulturarteakoak bidegabekeriaren, diskriminazioen, desberdintasunen, arazoaren, zatiketen, esku-bide urratuen eta abarren zerrenda amaiezin batek zeharkatzen ditu.

Batzuetan, intentsitate-maila handiak lor ditzakete eta inposizioekin eta indarkeriarekin batera joan daitezke. Nola erantzun zapalkuntza horri, zer bitarteko erabili, zer estrategiari jarraitu. Puntu honetan, ezinbestekoa da galdera klasikoa planteatzea, helburuak bitarteko guztiak justifikatzen dituen jakiteko.

60ko hamarkadatik aurrera Euskadin ekintza politikorako bitarteko gisa indarkeria erabili zutenek diktadura frankistak zekarren bidegabekeriaren testuinguruan aurkitu zuten autojustifikaziorako esparrua. Beharbada, hobekien laburbiltzen zuen esamoldea hauxe zen: “beste aukerarik ez daukagu”.

Horrela, testuinguru jakin batean indarkeriara jotzea izango litzateke aukera posible bakarra. Zergatik? Beste aukerarik ez dagoelako, edo, halakorik badaude, alferrikakoak direlako edo zerbait okerragora eramango dutelako. Gaur, 60 urte baino gehiago igaro ondoren, denboraren ikuspegiak ideia hori gezurtatzen du.

Eskema ideologiko irmo baten zementu armatuan enkofratutako uste sendo horrek “ez dugu beste aukerarik” premisari egia absolutuaren izaera ematen dio: “gaitz txiki bat da ondasun handiago bat eskuratzeko”. Zalantzarik gabe, diagnostikoa absolutizatu egin da. Hiltzera iristeko ezinbestekoa da zalantzarik ez izatea, zalantzan dagoena ez da hain urrun iristen.

Indarkeria dogmatismoan oinarritzen da, zalantzarik gabeko egietan. Hain zuzen ere, zerbait “erabat” justifikatuta dagoela dirudienean, diagnostiko hori zalantzan jartzea da beharrezkoena. “Ez daukagu beste aukerarik” esamoldearen aurrean, beti beste aukera bat dagoela esan daiteke; ez hori bakarrik, beti dago indarkeria baino hobea den beste hauturen bat.

Gure oraintsuko historiatik atera daitekeen lehen ikaskuntza da indarkeriara jotzea akats erradikala eta atzeraezina izan zela. Hasieratik amaierara arteko akatsa izan zen, eta, gutxienez, honako arrazoi hauengatik izan zen:

- Ondorioak konponezinak izan ziren. Ehunka biktima-familiatan sufrimendu bidegabea eta konponezina eragin zuen. Horixe da emaitzen balantze nagusia.
- Indarkeriara jotzeak ez zuen helburu bakar bat ere lortu. Politikoki alferrikakoa izan zen, baita kaltegarria ere.
- Zigor eta sufrimendu larriak eragin zituen bere jarraitzaileen artean ere: heriotzak, erbestea, kartzela eta gaztarotik zapuztutako bizitzak.
- Ordezkatu nahi zuen gizartearen gehiengo zabalaren gaitzespena eta mobilizazioa eragin zuen.
- Euskal Herriak munduan zuen irudia larriki kutsatu zuen, indarkeria haren bilakaera terrorismoaren beste adierazpen bat bezala ikusi baitzuen.

Arrazoi horiengatik eta beste askorengatik, gure belaunaldi gazteei –eta munduan entzun nahi gaituztenei– esan diezaiekegu 1960tik 2018ra arteko “euskal kasuaren” esperientziak erakusten duela indarkeriara jotzea, ETAk edo, bere garaian, estatu-terrorismoak egin zuen bezala, erabateko akatsa izan zela.

“Beste aukerarik ez dugula” esatea ez da argudio bat; dilema faltsua da, aukera bi baino ez izatera murrizten duen dilema faltsua da: “indarkeria edo zerbait okerragoa”. Ez; bizitza osoko ikuspegiarekin eta hirurogei urte igaro ondoren, esan dezakegu indarkeria izan zela *aukerarik* okerrrena.

Bizitza pertsonala, familiakoa, soziala, politikoa... zailtasunez, arazoz, gatazkaz eta bidegabekeriak jositako dago. Alderdi horietako edozeinetan bizitzea eta elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerak identifikatzea eta sustatzea da. Besteak beste, indarkeria baino aukera hobea bilatzea eta aukeratzea esan nahi du horrek.

III.2. Metxa piztea erraza da... zaila itzaltzea da

Indarkeria aktibatu ondoren, arazoa da makineria hori noiz eta nola gelditu. Zein argudiorerkin. Euskal esperientziak erakusten du irteera labirinto bihurtzen dela erabiltzen duenarentzat. Indarkeriak inertzia indartsua sortzen du, eta berak bultzatzen du. Interpelazio etiko batek geldiarazteko probabilitatea txikia da. Erailtzak eta hiltzak, aitzakia politiko edo ideologiko batekin, atzera bueltarik ez duen eta behin betiko den zerbait adierazten du.

Aukera horretara iristen direnek estres existentzialera eramaten dute bizitza indibidualaren eta kolektiboaren zentzua. Beste edozein “dimentsioren” ikuspegi moralak justifikatzen dituela sentitzen dute. Defendatzen duten kausa garrantzi handiagokoa da, Maiuskulaz idatzitako “Justiziaren” *ongi gorena*. Horrela, borroka horri halako balioa ematen zaio, non *helburuak bitartekoak justifikatzen dituela* esan baitaiteke. Absolutizazio ideologiko horrek gaitzen du indarkeriara jotzea.

Logikoa denez, hori baldin bada mekanismo gaitzailea, mekanismo desaktibatzaileak emaitza sendo bat behar du, “indarkeriak bere zeregina bete zuela eta amaitu dezakeela” esateko. “Euskal kasuak” agerian uzten du hori dela arazorik larrienetako bat. Indarkeriak ia erabateko “garaipena” behar du iraganen hartutako erabakiaren larritasuna eta horren ondorioak justifikatzeko. Jokoan dago bizitza indibidualaren eta kolektiboaren zentzua justifikatzea, beste pertsona batzuen bizitzeko eskubidearekin jolasteak dakarren estres existentziala konpontzea.

“Euskal kasuan”, errealtate hori argi eta garbi egiaztatu ahal izan dugu. ETA 1958an hasi zen indarkeria sortzen, eta 2018an amaitu zen behin betiko. ETAk aukera asko izan zituen indarkeria-estrategiari

amaiera emateko, eta beti erabaki zuen aurrera jarraitzea. Trantsizioan egin ahal izan zuen, Franco diktadorea hil ondoren 1976-1977-1978 bitartean. Gernikako Autonomia Estatutua 1979an onartu zenean egin ahal izan zuen. 1981-1982an egin ahal izan zuen, ETApn desegin zenean. 1989an egin ahal izan zuen, Aljerren Espainiako Gobernuarekin izandako elkarrizketen esparruan. 1998 eta 1999 bitartean egin ahal izan zuen, Lizarrako Akordioa artikulatu eta Aznarren gobernuak elkarrizketak izan zituenen ETArekin Suitzan. 2006an egin ahal izan zuen, PSE-EE, EAJ eta Ezker Abertzalearen artean Loiolan lortutako akordioaren esparruan.

Erreferentzia ezagun eta nabarmenenak baino ez dira aipatu, baina askoz gehiago dira alferrik galdu zirenak, adibidez, Elkarri gizarte mugimenduak 1993-2005 bitartean sustatutako bitartekaritza saioak eta bake konferentziak, nazioarteko erakunde garrantzitsuen inplikazioarekin, hala nola Carter Center edo Sant'Egidioko Komunitatea, edo Adolfo Perez Esquivel Bakearen Nobel Sariaren bitartekaritza saioa 1997an.

Indarkeria baliatzeari atxikitzeak indarkeria hori amaierarik gabe berresteko joera duten jokabide eta arrazoibide dogmatikoak sustatzen ditu. Indarkeriaren aldeko erabakia ezeztatzeko zailtasun hori agerian uzten duten hiru sintoma handi identifika daitezke, gutxienez: espektatiba, maximalismoa eta eskalada.

Indarkeriaren etorkizuneko promesaren itxaropena

Inoiz ez zen ezer nahikoa izan ETaren baitan indarkeriari amaiera emateko garaia iritsi zenaren ideia gauzatzeko. Beti beste argudio bat gainditu zen: itxaropen bat. Frogaezina zen zerbait aldarrikatzen zuen espektatiba bat: "borroka armatuak egungo emaitza baino hobea lortzeko baldintzak sortuko zituen". Fantasiatzko ilusioa izan zen beti, itxaropen faltsua. Gero eta isolamendu politiko eta nazioarteko isolamendu handiagoa, eraginkortasun polizial handiagoa eta gizartearen gaitzespen handiagoa lortu zituen. ETA, azkenean, 2018an desegin zen, ez erabaki propio baten ondorioz, baizik eta bere hondamenaren ondorioz.

Indarkeria terroristak behar bezain emaitza argirik ematen ez duen heinean, erantzuna aurrera ihes egitea da, emaitza argiago baten bila, argi gera dadin indarkeriara jotzearekin "asmatu" egin zela. Garaipe hori agertzen ez denez, beti aurkitzen edo "fabrikatzen" dira argudio berriak jarraipena justifikatzeko. Indarkeriaren etorkizuneko arrakastaren aldeko apustua iragana justifikatzeko itxaropen (faltsu) gisa aurkezten da.

"Euskal kasutik" ondorio bat atera dezakegu. Borroka armatura jotzea etorkizun oparoaren ideari lotzen zaio, eta etorkizun hori efektuen eraginkortasunarekin iritsiko da. Aurreranzko ihesari eusten dio. Itxaropen faltsu horrek indarra sortzen du praktikatzen edo babesten dutenengan, eta indarkeriaren aldeko apustua baliogabetzeko edo zuzentzeko gaitasuna blokeatzen du.

Maximalismoa

Bigarren sintoma hori estuki lotuta dago aurrekoarekin. Indarkeria erabiltzen duena eta hiltzeko prest dagoena arrazoi osoaren jabe sentitzen da. Dogmatismo hori ezinbestekoa da indarkeriari atxikitzeko, eta erraztasun handiz besarkatzen du maximalismoa. Egia osoaren eta arrazoi osoaren jabe sentitzen denak ez du merkealdirik onartzen, "ziurtasun osoz dagokion guztia" jaso nahi du.

Horrek esan nahi du porrota eragiten duten elkarrizketa-prozesuei ekiteko modu bat dagoela. XX. mendeko azken hamarkadetan indarkeriarekin amaitzeko munduan hainbat akordio-prozesuk aurrera egin zuten bitartean, ETA tematuta zegoen aurrera egiten. Guztiaren eta ezerezaren artean, guztiaren aldeko apustua egin zuen beti. Ezereza konkistatu izana eta munduko bizitza luzeneko bi erakunde terroristetako bat eta Europako azkena izatearen ohore tristea izan zen azken emaitza.

Euskal esperientziatik atera daitekeen ondorioa da indarkeriaren estrategian jarraitzeak maximalismoarekin bat egiten duela, eta horrek indarkeriari amaiera emateko arrazoiak ezkutatzeko joera du.

Belaunaldien arteko eskalada

Indarkeria hainbeste luzatzen denean, belaunaldien arteko erreleboa gertatzen da indarkeria erabiltzen dutenen artean. "Euskal kasuak" frogatu ahal izan du aldaketa horrek areagotu egiten duela indarkeriaren aldeko apustua. Espektatiba eta maximalismoa areagotzen ditu. Indarkeriaren aldeko erabakia

ezeztatzeko bete behar diren baldintzen zerrenda zabaltzen du. Belaunaldien arteko erreleboa eskalada gisa agertzen da.

Indarkeriara gehitzen diren belaunaldi berriek indarkeriarekin hasi zirenen esperientziarik gabe egiten dute. Zaharrenak konturatzen hasten direnean horrek ez duela besterik ematen eta, are gehiago, akatsa izan daitekeela, kide berrien belaunaldi bat iristen da, fantasia politikoko aukera berriak lortzeko aurrera jarraitzeko erabakia hartzen duena, "dena lortzear dago".

Azkenean, erakarpen-indar hori arazo larri bihurtzen da: bulkada-inflazioa eta gogoeta-defizita sortzen ditu. "Euskal kasuan", ondorioa da indarkeriara jotzen jarraitu izanak belaunaldi-erreleboa eragiten zuela, indarkeriaren aldeko apustuan eskalada dakarrena.

Azken batean, indarkeria ez aktibatzen beste arrazoi indartsu bat da, behin abiatzen denean, inertziak betikotzeko joera duela, itxaropen faltsuekin, maximalismoekin eta belaunaldi-erreleboaren eraginarekin. Erraza da metxa piztea, eta zaila da itzaltzea. Hau da bigarren ikaskuntza.

"Euskal kasuan" ez bezala, azken hamarkadetan indarkeria amaitzea eragin zuten elkarrizketa- eta adostasun-prozesuak egon dira. Beren izaera enblematikoagatik, Hegoafrika edo Irlanda aipa daitezke.

Prozesu horietan, ezinbestekoa izan zen lidergo bat egotea, itxaropen faltsuen argudioei, maximalismoari eta belaunaldien arteko eskaladari aurre egiteko gai izango zena. Lidergo horiek, gainera, nazioarteko babes garrantzitsuak sortzeko gai izan ziren. Euskadiren kasuan, lidergo horiek ez ziren egon edo ez zuten arrakastarik izan.

III.3. Bidegabekeriaren aurrean... buru gehiago eta bihotz gehiago

"Euskal kasuaren" jatorrian, estatu frankistak oso errepresio larria eragin zuen, ETaren aurretik. Diktadorea hil arte jarraitu zuen errepresio horrek, eta oraindik ere urte batzuetan kolpeak ematen jarraitu zuen, Estatuaren egiturak diktatorialak izatetik demokratikoak izatera igaro ez zirelako egun batetik bestera. Erregimen frankistak ordezkatu zuenaren erabateko gaitzespena ezinbestekoa da. Aldez aurreko betekizun etiko eta demokratiko baten parte da.

Premisa horrekin, puntu honetan hirugarren ikaskuntza prebentibo bat identifikatzen saiatuko gara. "Euskal kasuan", ETaren 1960tik 1975era bitarteko lehen urteetan prebentzioaz hitz egin dezakegu. Denbora horretan, agian, posible izango zen gero etorriko zen guztia prebenitzea. Gure buruari galdetu nahi diogu zer gehiago egin zezaketen Francoren aurka egonda ETako edo haren mugimendu politikoko kide izan ez zirenek lehen urte haietan.

Hausnarketa horrek ez du esan nahi ETaren indarkeriaren aurkako oposizio politikorik eta sozialik ez zegoenik. Erbesteko Eusko Jaurlaritza, adibidez, argi eta irmo aurka agertu zen, baina diktaduraren testuinguruak ez zuen aukerarik ematen pedagogia eraginkorra garatzeko. Nolanahi ere, hausnarketa autokritikoa egitea komeni da.

Berriz hasteko mekanismo bat, bigarren aukerakoa, abian jarri ahal izango bagenu, gutxienez bi jarrera izango genituzke, eta horiek aldatzen saiatzea merezi luke, gertaeren bilakaera azkenean hori gertatu zen bidetik igaro ez zedin: banakako garaikidetzeta eta gutxiespen kolektiboa.

Banakako garaikidetzeta indarkeriarekin

Frankismoaren azken urteetan, Erregimenaren zapalkuntzaren eta diktaduraren 40 urteetan gertatutakoaren memoria mingarriaren testuinguruan, Euskadiko, Espainiako eta nazioarteko iritzi publikoko sektore garrantzitsuek begikotasunez begiratu zioten ETari lehen urteetan. Ikusmen falta egon zen hazi hark denborarekin ondorio izugarriak izango zituela aurreikusteko. Perspektiba eta burua falta izan ziren horrek ekarriko zuen guztia ulertzeko.

Indarkeria frankistaren testuinguruak nolabaiteko anibalentzia eragiten zuen, eta jarrera akritikoak eragiten zituen. Erregimenaren aurka aktiboki zeudenen artean, ez ziren asko izan indarkeriaren bidea akats larria zela argi eta garbi ikusi eta adierazi zutenak hasiera-hasieratik. Ezkerreko, nazionalismoko edo erdialdeko sektore askok, bai Euskadin, bai Espainian, ETA ulertu zuen, eta, kasu batzuetan, justifikatu edo babestu ere egin zuen.

Denboran zehar, ezin konta ahala pertsonen lekukotzek gogorarazten dute beren biografian inskribatuta dagoela ETAK esan nahi zuenarekin behin betiko hautsi zen unea. Batzuek frankismoa amaitu aurretik egin zuten, beste batzuek trantsizioan, beste batzuek 80ko, 90eko edo 2000ko hamarkadaren hasieran, edo atentatu bereziki krudel baten ondorioz, edo su-eten bat edo elkarrizketa batzuk hautsi zirenean. Herri honetako pertsona askoren historiaren zati bat markatuta dago ETAz libratu zireneko momentuagatik.

Berriro hasi ahal izango bagenu, herri honetako pertsona asko, hasiera-hasieratik, indarkeriaren lehen tentazio-zantzuaren aurka egongo ginatke modu argiago eta irmoagoan. Begirada kritikoagoa eta irmoagoa behar izango zen. Erregimen frankistaren aurka irmoki jartzea bateragarria zen indarkeriari aurka egitearekin.

Indarkeriaren gutxiespen kolektiboa

70eko hamarkadaren hasieran, alderdi politiko klandestinoen eta erakunde armatuen sigla ugarik osatzen zuten euskal panorama. Talde politiko bakoitzak ikuspegi bikoitzarekin borrokatzen zuten: Erregimenaren aurkako borrokan eraginkorrak izatea eta gertatzen ziren aldaketen aurrean ondo kokatuta egoteko espazio propioaren bilaketan eraginkorrak izatea.

Testuinguru horretan, "borroka armatuaren" faktorea gutxietsi egin zen politikoki. ETaren aurkako lehen manifestazio minoritarioa 1978ko ekainaren 28an PCEk deitu zuen. ETaren aurkako lehen manifestazio masiboa EAJk deitu zuen urte bereko urriaren 28an.

Erregimen frankistaren oposizioko euskal protagonista politiko nagusiek ETA noraino iritsiko zen eta zer ondorio izango zituen jakiteko aukera izan balute, zer aldatuko zuten egin zutenetik?

Ziurrenik, pentsatuko zuten irmoagoak izan behar zutela borroka armatua erabiltzeari uko egiteko, eta garaiz osatu behar zela aliantza soziopolitiko indartsu bat, erregimenari aurre egiteko eta, zalantzarik gabe, indarkeriara jotzea baztertzeko. Ziur asko, Eusko Jaurlaritzak erbestean izan duen legitimitate historikoaren inguruko indarrak bildu eta batu izan balira, elkartze-estrategia bat abiaraz zitekeen, indarkeriari buruzko lidergo ameslarietatik urrun.

Beti damutzen dira iraganeko zatiketa haiek, garai hartan bateraezintasun nabariko arrazoi ziruditenak eta, denborak aurrera egin ahala, azkenean garrantzirik gabekoak direnak. Ikusmen-defizita egon zen.

Ikasi dugu ETaren indarkeriaren larritasuna gutxiestea, frankismoaren aurkako hastapenetan, akats partekatua izan zela, bai indibidualki, bai kolektiboki. Frankismoaren bidegabekeriaren aurrean, buru eta bihotz gehiago behar izan ziren indarkeriaren hautua erabat alboratzeko eta baztertzeko.

Errazagoa da *a posteriori* adieraztea *a priori* ulertzea baino; baina orain zehaztu egin behar da, hemen beste egoera batzuetan erabilgarriak izan daitezkeen ikaskuntzak ateratzea baita kontua. Giza eskubideen baldintzarik gabeko errespetua bizikidetzarako adimen politiko etikoaren eta demokratikoaren adierazpena da.

IV. Indarkeriaren denborari aurre egiteko bost ikaskuntza

Trantsizioaren ondoren, indarkeriaren hedapen-denboran kokatzen gara. 1978tik 2010era bitarteko aldia da, 2010ean gertatu baitzen ETaren azken atentatu hilgarria. 32 urteko jarduera terrorista etengabea da demokrazian. Bigarren atal honetan, euskal gizartearentzat eta politikarentzat hain traumatikoa den eta biktimentzat hain bidegabea den pasarte honen ikaskuntzak identifikatzen saiatuko gara. Zer egin genezakeen beste modu batera edo zer egin genezakeen egin ez genuena, gure historia beste era batera joan zedin.

IV.1. Biktimei lehenago begiratzea

Eraiketa erabiltzen duenak pantaila bat eraiki behar du, biktimak ez "ikusteko". Hiru osagai dituen hesi bat da: sorburuaren sublimazioa, etsaiaren irudia edo, salbuespen gisa, *nahi gabeko akatsa* aitortzea.

- Sublimazioak esan nahi du defendatzen den kausari biktimen bizitzari baino balio eta zentzu handiagoa ematen zaiola. *Ongi goren* baterako *beharrezko gaitza* onartzea.
- Etsaiaren irudia* aplikatzeak berekin dakar biktimak deshumanizatzea eta pertsona gisa ikusteari uztea. Biktimak, operatibo inpersonale baten ondorio.
- Akatsa aitortzea, "istripuz" eragindako biktimak agertzen direnean bakarrik. Kasu horretan, biktimak atsekabetzen duten nahigabeko *hutsegitea* baino ez dira.

Eraikuntza ideologiko honek indarkeriaren beste aldean dagoena ikustea eragozten duen horma bat eraikitzen du. Alde honetatik, hura justifikatzen duen ideologia baino ez dago. Bestetik, benetako ondorioak daude, biktimen errealitatea.

Indarkeriara ez jotzeko argumentu garrantzitsuena biktimengan dago. Horietako bakoitza errealitate eztabaidaezina da. Gainerako guztia eztabaidagarria da: jarraitu beharreko politika, bideak, estrategiak, diagnostikoa... Eraildako biktima ez da bizitzara itzuliko, haren familiak ez du inoiz indarrez kendutako pertsona maitearen presentzia berreskuratuko.

Nahiz eta biktimekiko funtsezko erantzukizuna indarkeria erabili eta babestu zutenena izan, gizarte osoari dagokio gai horri buruzko gogoeta kritikoa egitea, biktimei begiratzea funtsezkoa baita. Biktimenganako begirada pertsonalizatuak behin betiko balioa du.

Armak erabili zituztenen erantzukizunetik harago, "euskal kasuan" denbora behar izan dugu begirada hau finkatzeko. Erakundeek, alderdi politikoez, gizarte-eragileek, unibertsitateak, elizak, komunikabideek, herritarrek... guztiok galde dezakegu noiz hasi ginen benetan biktimei begiratzen.

Bi adibideak erakusten dute egoera hori. Lehenengoak eremu politikoari eragiten dio. 1987an Madrilgo Ituna sinatu zen, eta 1988an Nafarroako eta Ajuria Eneko Itunak. Alderdi politiko guztiek indarkeriaren amaieraren alde sinatutako akordioak dira, Herri Batasuna izan ezik, "ETAren beso politikotzat" jotzen dena. Garrantzitsuak izan arren, hiru dokumentu horietako bakar batek ere ez ditu biktimak aipatzen.

Bigarrenak komunikabideei eta atentatu bakoitzean biktimei eman zaien tratamenduari eragiten die. 70eko hamarkadan, eta 80ko hamarkada ondo sartu arte, terrorismoak eta indarkeriak eragindako biktimen errealitateari eskainitako tratamendua, harrigarria bada ere, eskasa izan zen, bai espazioari dagokionez, bai edukiari dagokionez. 1976 eta 1982 artean, Foronda Institutuko ikertzaileek biktimen hiru testigantza baino ez dituzte aurkitu prentsan.

Berrito hasiko bagina, ziurtasun osoz beste modu batera jokatu genuke. "Euskal kasuak", biktimen arloan, hausnarketa autokritikoa eskatzen du. Akatsak eta asmatzeak aipa daitezke.

Akatsak

Lehenengoa eta larriena ahanztura eta isiltasuna izan ziren. 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan, gabezia handiak izan ziren aitortzan eta erreparazioan. Biktimak ez zeuden agendan. Gerora, euskal erakundeek autokritika argiak eta esanguratsuak egin dituzte.

Biktimek jasandako indarkeriaren zeinuaren arabera merezi zuten tratuan desberdintasunak egitea izan zen beste akats bat. Hirugarrenak zerikusia izan zuen kasu batzuetan gertatu zen biktimen kausaren instrumentalizazio alderdikoiarekin. Laugarren akatsa zatiketa izan zen. Gehiegitan, zatiketa politikoa biktimen kausak merezi zuen elkartasunaren aurretik jarri zen.

Politikak eta gizarteak beren akatsetatik ikasi zuten, eta jarrera horiek zuzendu zituzten. Hala ere, horrek guztiak autokritika hori esplizitatzea merezi du, errepikatzea prebenitzeko eta beste testuinguru batzuetan kontuan hartu ahal izateko.

Asmatzeak

Asmatzeak, hain zuzen ere, egindako akatsei erantzuteko prozesuan kokatu behar dira. 90eko hamarkadan, gero eta sentsibilizazio handiagoa egon zen biktimekiko errekonozimenduaren eta elkartasunaren inguruan. Horretarako, funtsezkoa izan zen biktimen elkarteek eta gizarte- eta herritar-mugimenduen, Bakearen Aldeko Koordinakundea bezalako en, zeregina.

Estatuan, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Elkartasuna egiteko lehenengo Legea 1999. urtearen amaieran onartu zen. 2000. urtetik aurrera, biktimei babes eta elkartasuna emateko babes arauemai-le, instituzional eta soziala eraikitzen joan zen, eta, hobetu daitekeen arren, urtez urte aurrera egin du.

2001eko abenduan Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritza eratu zen. Eusko Legebiltzarrak 2008an onartu zuen Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Euskal Legea (4/2008 Legea, ekainaren 19koa).

2014ko azaroaren 27an, Eusko Legebiltzarrak 4/2014 Legea onartu zuen, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa.

2016an, Eusko Legebiltzarrak 12/2016 Legea onartu zuen, motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa (komunikabideek polizia-abusuen biktimen legea deitzen diotena).

Asmatzeen artean, Euskadin izan diren autokritika instituzional eta politikoen adierazpenak ere jarri behar dira. Ildo horretan, nabarmendu behar da Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak egindako lana; izan ere, 2006tik 2017ra bitartean, biktimen arloan egindako akatsengatik autokritika esplizitua egin zuten.

Beste asmakizun aipagarri bat biktimak bizikidetzaren eragile gisa sustatzea izan zen. 2011n, biktimen eta presoaren arteko topaketa leheneratzaileak hasi ziren; 2012an, 2007an hasitako terrorismo eta indarkeria desberdinen biktimen arteko topaketen Glen Cree esperientzia aurkeztu zen. 2010-2011 ikasturtean, biktima hezitzaileen programa jarri zen abian, gero Adi-adian programaren bidez jarraitu duena. 2015ean Eraikiz manifestua argitaratu zuten terrorismoaren eta mota desberdinetako indarkeriaren biktimen artean egindakoa. 2015ean ere, Eusko Jaurlaritzak Batera dokumentua bultzatu zuen, biktimak iraganarekin ez ezik etorkizunarekin eta bizikidetzarekin lotzea eta biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzea proposatzen duena.

“Euskal kasuak” biktimen arloan eskain dezakeen ondorio garrantzitsuena da biktimen errealitateari konprometitutako begirada indarkeriaren eraldatzailea eta desaktibatzailea dela. Biktimei *lehenago* begiratzea “euskal kasuaren” funtsezko ikaskuntza da.

Lehenbailehen begiratzea, gertatu *aurretik* ere begiratzea, sufrimendu itzulezina eta bidegabea saihesteko. Indarkeria-agertokietan arazo larri bat dago: biktimen errealitateari benetan begiratzen hasten garenean, beranduegi izaten da.

Prebentzioa berandu iritsi bada, giza eskubideen urraketa larrien biktimak izan badira, dagokien Egia-, Justizia- eta Erreparazio-eskubideak betetzea ahalbidetuko duten politikak garatzea da lehentasuna. Eta, hasiera-hasieratik, abandonurik, ahanzturarik, instrumentalizaziorik eta zatiketarik gabe, eta iraganari ez ezik, etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzari ere lotuta.

IV.2. Muga argiekin... *hobe hitz egitea ez hitz egitea baino*

Gizartearen zati esanguratsu batek bere egiten badu indarkeriara jotzeko justifikazioa, arazo soziopolitiko larriagotu baten aurrean gaude, eta kezka nagusiaren eta espezifikoaren xede izan behar du. ETA ez zukeen hainbeste urte iraungo bere tesiek gizartearen zati baten babes iraunkorra izan ez balute. Izan ere, ETAREN desgitearen arrazoi indartsuetako bat da gizarteak ez duela bere burua ulertzen, ezta bere munduak ere.

Bizikidetzaren ikuspegitik, indarkeriarekin eta haren ondorioekin batera, bereziki larria da etsaitzat hartzen diren bloke sozialen arteko porrot-arriskua. Indarkeria erabiltzeak banaketa hori sortzen laguntzen du. Haustura zibilaren prebentzioa, lehentasunezko azterketa- eta kezka-ardatz gisa, funtsezkoa da indarkeria eta gatazka politikoko testuinguru batean.

Hemen defendatuko dena ez da elkarrizketa dela indarkeriari amaiera emateko tresnarik eraginkorrena. Inguruabarren arabera, izan daiteke, edo baliteke ez izatea. Euskadin ez zen hala izan; munduko beste leku batzuetan bai. Elkarrizketa ezinbestekoa da gizarte baten zatiketa prebenitzeko eta, azken batean, liskar zibila saihesteko. "Euskal kasuaren" esperientziaren ondoren, baieztatzen dugu elkarrizketa ez dela baztertu behar, eta, gainera, sakon erabili behar dela.

Nolanahi ere, hausnarketa hori ez da baketsua. "Euskal kasuan", aukera politiko eta diskurtso publiko batzuen arabera, elkarrizketan aritzea bakeari prezioa jartzea zen, indarkeriaren xantaiari amore ematea, edo hiltzailea saritzea. Kritika horiek ez dira gutxietsi behar. Elkarrizketa amarru huts gisa erabili daiteke. *"Indarkeria erabiltzea elkarrizketa eta negoziazioa eskatzeko, eta indarkeriaren amaiera negoziazioak abantailak eskaintzera baldintzatzea, indarkeria horren mehatxuagatik"*. Horregatik da ardurasua elkarrizketaren arriskuez eta bertuteez hitz egitea.

Elkarrizketaren arriskuak

"Euskal kasuan" elkarrizketaren aurka agertu zirenen objektioetatik kontuan hartu beharreko ekarpenak atera daitezke. Elkarrizketarako bideak baztertzearekin batera, poliziaren ekintza defendatu ohi zen, bide horien alternatiba baztertzaille gisa. Aldiz, zenbaitetan, batzuek polizia-ekintzaren alternatiba gisa aurkeztu zuten elkarrizketa. Ez dira bateraezinak. Elkarrizketa tresna demokratikoa da, eta ez da baztertu behar. Polizia-ekintza, betiere giza eskubideak zorrotz errespetatuz egiten bada, beharrezkoa eta saihestezina da indarkeria eta erailketa erabiltzen duenaren aurrean.

Elkarrizketaren eta negoziazioaren arteko bereizketa beste ohar baliotsua da, elkarrizketa-bideekiko adierazitako mesfidantzetatik berreskura daitekeena. Ia beti eta ia mundu osoarekin hitz egin daiteke, baldin eta borondatez, ados jarrita eta indarrez inposatu gabe egiten bada. Negoziazioa, ordea, egingarria da horretarako legitimazioa dutenen artean gertatzen bada. Demokrazian, ezin da negoziatu erabaki politikoak hartzeko ahalmena eman ez gizartearen legezko ordezkariarik ez duenari, eta are gutxiago derrigortuta.

ETA bezalako erakunde terrorista batekin hitz egitea beharrezkoa izan daiteke. Hala ere, testuinguru demokratiko batean, ez da politikoki negoziatu behar gizartea ordezkatzeko ez duen erakunde batekin. "Euskal kasuan", erakunde terrorista batek gutxiengo gisa jarduten du hauteskunde-deialdi bakoitzean demokratikoki adierazitako gehiengo baten aurka. Euskadin ez zen gerrarik egon, eta ez zen elkarren aurkako bi bandorik egon.

"Euskal kasuan", 1978 eta 2010 artean, Espainiako Gobernu guztiak saiatu ziren, bereizi gabe, ETArekin hitz egiten edo negoziatzen. Ez zuten aurrera egin. ETAk listoia maximalismotik igoz interpretatu zuen aukera bakoitza. Gobernu demokratiko batek elkarrizketa-bideak ireki ditzake –eta, ziur asko, hala egin beharko du– indarkeria erabiltzen duen eta gizartearen babesa duen erakunde batekin, baina saihestu egin behar du negoziazio politikoa posible izateko itxaropena transmititzea. Elkarrizketak muga argiak ezarri behar ditu.

Elkarrizketaren bertuteak

Muga horien barruan, elkarrizketa oso tresna baliotsua da liskar, gatazka, indarkeria edo zatiketa testuinguru batean esku hartzeko. Hitz egitea erabaki politiko bat hartzea da, aukera bat egitea. Giza izaeraren onenari aukera ematea da. Aukera egin, irteera partekatua bilatzeko.

Aitzitik, elkarrizketa ukatzeak berretsi egiten ditu indarkeriak alternatibarik ez duela uste dutenak, eta beren biktimismoa indartzen du. Urrundutako gizarte-sektoreen arteko abismoa eta inkomunikazioa areagotzen ditu. Indarkeria babesten duen pertsonarekiko elkarrizketak, dena argi adierazten badu eta ezinezkoa bada, irteteko edo distentsiorako aukerak irekitzen ditu.

ETArekin hitz egiteko saiakerek ez zuten indarkeriaren amaiera ekarri. Nolanahi ere, elkarrizketaren defentsa sozial eta politikoari esker, elkarrengandik urrun eta banatuta zeuden gizarte-sektoreen arteko komunikazio-, hurbilketa- eta truke-zubiak zabaldu ziren. Liskar zibilaren uneak puntualak izan ziren, eta ez ziren zabaldu, ezta orokortu ere.

Elkarrizketa antolatua gizartetik bertatik eta herritarren mugimenduetatik defendatzea, elkarrizketa alderdi politikoan, erakundearen edo bakearen aldeko itunen diskurtsoetan egon izana, euskal elizaren eragina, erreferente intelektualek eta unibertsitateen iritzia, edo elkarrizketaren aldeko

herritarren kontzientzia bera lagungarriak izan ziren indarkeriaren agertokia gatazka zibil ireki batean ez aldatzeko.

Testuinguru demokratiko batean, gizarteak aukeratutako ordezkari instituzionalek eta politikoei gidatu behar dute gai politikoei buruzko negoziazioa. "Euskal kasuan", hobeto bereizi behar ziren ETArekiko elkarrizketa eta ETArekiko negoziazioa. Horretarako benetan legitimatuta zeuden ordezkariak sozial eta politikoen arteko elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko apustua aurreratu eta areagotu behar zen.

Nolanahi ere, elkarrizketaren defentsa sozial eta politikoak deskonpresio sozialerako espazio bat sortu zuen. Hori da, beharbada, garrantzitsuena. Elkarrizketa funtsezko tresna politikoa eta demokratikoa da indarkeriazko gatazka bat desaktibatzen laguntzeko. Gizarte-zatiketa edo liskar zibila saihesteko erabili behar den tresna bat. Azken ondorioa da muga argiekin hobe dela hitz egitea ez egitea baino.

IV.3. Giza eskubideak ez urratzea... Estatuak inork baino gutxiago

Etikaren eta demokraziaren ikuspegitik, Estatuak estamentuek "euskal kasuan" egindako akatsik larriena frankismoaren aurkako disidentziari, lehenik, eta ETari eta haren inguruneari, ondoren, batzuetan giza eskubideen errespetuaren muga gaindituz aurre egitea izan zen. Terrorismoaren aurkako borrokan, une jakin batzuetan, gerra zikinaren metodoak erabili ziren. Indarkeria hori bi bloketan sailka daiteke: legez kanpoko indarkeria poliziala eta parapoliziala, eta erakunde terrorista paraestatalen indarkeria.

·Indarkeria polizialaren eta parapolizialaren ondorioz, 70 eta 80 pertsona artean hil ziren errepide-kontroletan, manifestazioetan, polizia-etxeetan edo "kontrolik gabeko" kasuen zerbitzutik kanpoko istiluetan. Biktima horien % 95 1961etik 1985era bitartean gertatu ziren. Ezin da zifra hori zehaztu, gaur egun oraindik, argitze-falta dagoelako, eta horrek agerian uzten duelako garai hartan indarkeria-mota horrek izan zuen zigorgabetasunaren eta adostasunaren testuingurua. Torturak presentzia handia izan zuen diktaduran. Demokrazian eta giza eskubideen nazioarteko erakunde arabera, praktika hori ezin da sistematikotzat hartu, ez eta noizbehinkakotzat ere.

·Erakunde terrorista paraestatalen indarkeriak 74 hildako eragin zituen. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran erakunde terrorista parapolizialak edo eskuin muturreko erakunde terroristak agertu ziren hainbat urtetan. Frankismoaren amaieran eta trantsizioan, Triple A, GAE, Batallón Vasco Español eta antzeko taldeek 46 pertsona hil zituzten. Laurogeiko hamarkadan, GALEk 28 pertsona hil zituen. Gerra zikin horrek onespena, adostasuna edo, batzuetan, konplizitatea aurkitu zuen estatuko estamentuetan.

"Euskal kasuaren" azterketak, giza eskubideen urraketaren errealitate horretatik, bi balorazio-eremu azpimarratu behar ditu: larritasun kualitatiboa eta ondorio suntsitzaileak.

Giza eskubideen urraketaren larritasun kualitatiboa Estatutik

ETAren indarkeriak berriazko larritasuna izan zuen, honako arrazoi hauengatik: denboran luzatu izana, inposaketa politikoa egiteko asmoa, Trantsizioaren eta Amnistiaren ondoren betikotu izana, laguntza soziopolitikoa, eta gertatutako giza kalteen eta kalte konponezinen balantzearen larritasuna eta intentsitatea (853 hildako).

Biktimei eragindako kalte bidegabeaz eta konponezinez gain, estatu edo paraestatu mailako legez kanpoko indarkeriak larritasun espezifiko eta kualitatibo handia du: joko etiko eta demokratikoaren arauak buruzko itun sozialaren haustura basatia da, hain zuzen ere, hura betetzen dela zaindu behar duenarena; herritarren diruarekin finantzatzen da; "denak balio du" ezartzen du, eta printzipio eta prozedura demokratikoetan izen ona galtzea dakarten ondorio antipedagogikoak zoritxarrekoak dira.

Estatuak delituzko indarkeria erabiltzea bezain larria da, denbora igaro ondoren, sistema demokratikoak delitu horiek argitzeari aurre egitea eta delitu horiei jaramonik ez egiten saiatzea edo, are gehiago, ukatzea. Jarrera horiek presentzia izan dute "euskal kasuan".

2014 eta 2019 bitartean, zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzak bi ekimen garrantzitsu garatu zituen. Alde batetik, horrelako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko aipatutako legea onartzea; eta, bestetik, torturak “euskal kasuan” duen eraginari buruzko txosten bat agintzea Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuari, 2016ra arte tratu txarren edo torturen 4.113 salaketa dokumentatu zituena.

Bi ekimen horiek erresistentzia handiak aurkitu zituzten Estatuko esparru politiko, juridiko eta mediatioetan. Hala ere, errealtatearen printzipioa gailentzen da: giza eskubideen urraketa mota horren biktimek existitzen dira eta izen-abizenak dituzte.

Giza eskubideen urraketaren ondorio suntsitzaileak Estatutik

Estatuaren babesean gauzatutako indarkeria ez-zilegiak berez merezi duen azterketa kualitatiboaz gain, haren ondorioen azterketari ere heldu behar diogu. Estrategia horiek diseinatu zituztenek ETA lehenago amaitzeko –haren hedapena mugatzeko– baliagarriak izango zirela pentsatu bazuten, erabat okertu ziren, guztiz kontrakoa lortu baitzuten.

Estatuko edo paraestatuko legez kanpoko indarkeriak mesede egin zion, momentuz, aurrez aurre zeuden bandoen gatazka bat hautemateari; indarkeriara jotzea justifikatzeko argudioak indartu zituen: “haiek egiten dutena okerragoa da”, “geure indarkeria erantzun-indarkeria da”; biktimismoa elikatu zuten; ETARI babesa edo ulermena ematen zion mundu soziopolitikoaren kohesioa indartu zuten; eta, okerrera, une garrantzitsuetan, belaunaldi-erreleboa bultzatu zuten.

Hori bereziki nabarmena izan zen laurogeiko hamarkadan. GAL erakundeak 1983 eta 1987 bitartean jardun zuen, eta aurreko urteetan errepresioak, torturak edo Triple A edo BVE erakundearen atentatuek utzitako arrastoa oraindik desagertu gabe zegoenean agertu ziren. Bestalde, erakunde terrorista hura ETApn desegin berria zenean eta gainerako ETA, atzerapenez bazen ere, urrats berak egitea aurreikus zitekeen agertu zen.

GAL erakundearen 28 erailketek, berriz ere, ETARI “bultzada berria” eman zioten. Gertakariak aurrez aurreko indarkerien dinamikatzen hartzen lagundu zuten. Belaunaldi-erreleboa bultzatu zuten ETAREN militantzian eta haren gizarte-laguntzetan, hain zuzen ere horiek gainbehera joan behar zutenean.

Terrorismo horrek, ETA ahuldu ez ezik, indartu ere egin zuen. Haren ondorioek eztabaida politiko, mediatio eta juridikoan eragiten jarraitu zuten urte asko igaro arte, prozesu judizialen, espetxeratzeen, indultuen, zigorgabetasunaren eta horrek guztiak sortu zituen erreakzioen harira.

Beste azterketa-plano batean kokatu behar da Estatuko terrorismoaren aurkako beste estrategia bat. 1990etik aurrera, Estatua pixkanaka gogortzen joan zen zigor- eta espetxe-politika. Presoak urruntzetik legezko *ad hoc* egindako aldaketetaraino. Estrategia horiek desadostasun handiak izan zituzten, batez ere Euskadin. Iritzi ugari eta askotarikoek adierazi zuten, zigor- eta espetxe-arloan, ETAREN terrorismoaren aurkako borroka salbuespenaren eremuan koka zitekeen praktika baterantz lerratu zela.

Muga lausoak ezarri ziren terroristatzat jotako jokabideetan. Prozeduraren bermeak ahuldu ziren. Zigorrak biziarteko kartzela-zigorrekin muga daitezkeen maximoetaraino luzatu ziren, edo *de facto* birgizarteratzeko aukera konstituzionala blokeatzen duten maximoetaraino. Prozesu horren puntu gorena 2003an zenbait lege organiko onartzea izan zen.

Zigor-arloko eta espetxe-arloko salbuespenek muga demokratikoekin eta giza eskubideen mugekin espekulatzen dute. Eskubideen eta askatasunen sistema baten oinarritzko estandarrak dira arlo honetako bermeak. Instrumentalizatzeak mezu nahasgarria igortzen du. Demokrazian “denak ez du balio” ahulduta geratzen da, “denak balio du” esamoldearen aurrean.

Nahiz eta politika horiek bultzatu edo babestu zituztenek ez duten azterketa horrekin bat egiten, gure kasuan, zigor- eta espetxe-arloko salbuespen-politikak zatiketa-faktore izan ziren. Euskal gizartearen gehiengoak baztertu egin zituen. Zigor- eta espetxe-arloko normaltasuna gizartearen adostasuna da, eta horren gabezia arazo bat.

Estatuak ezin ditu erabili legez kanpoko indarkeriazko bitartekoak, ez eta giza eskubideen urraketa ere, disidentziari eta terrorismoari aurre egiteko. Ez eta legezko mugak bihurritu edo salbuespena eraman ere. Estatuak eskura dituen bitarteko demokratiko guztien bidez egin behar dio aurre terrorismoari.

Baliabide ez-demokratikoak erabiltzeak edo gehiegi erabiltzeak ahuldu egiten ditu erakundeak, argudioak ematen dizkie horiek erabili behar dituztenei indarkeriara jotzen dutela justifikatzeko, eta, garrantzitsuena, urratu egiten du bizikidetzaren soziopolitikoaren oinarri izan behar duen konpromiso etikoa.

Estatuko estamentuekin lotutako legez kanpoko ekintza bortitzak edo terroristak gertatzen badira, erakunde demokratikoek ausardiarekin jokatu behar dute gertatutakoa argitzeko eta biktimei ordaina eta errekonozimendua emateko.

IV.4. Gizarteari *hobeto* entzutea

“Euskal kasuan”, zatiketa nabarmenagoa izan zen aukera politikoen artean gizartearen oinarrian baino. Tentsio, krispazio edo zatiketa une garrantzitsuak izan ziren, baina ez ziren gauzatu, ezta finkatu ere. Beste gatazka biolento batzuen kasuan, ez da beti horrela izan; blokeetan, bandoetan, erlijioetan, nortasun nazionaletan gertatzen den liskarra banaketa soziala egonkor eta ireki gisa agertzen da, eta, batzuetan, liskar zibil biolentoaren arrastoak ere hartzen ditu.

Horrek potentzialtasun positiboa izan zuen, baina, ziur asko, ez zen behar adina sustatu. Gizarte batek modu askotan hitz egiten du. Demokrazian, jakina, bere hauteskunde-jarreraren bidez hitz egiten du. Indarkeria-, gatazka eta zatiketa-testuinguru batean, beste adierazpen batzuei ere erreparatu behar zaie. Hauteskunde-bidez gain, herritarren adierazpenerako bi bide nagusiri buruz hitz egin liteke, gutxienez: gehiengoaren eta zeharkako borondateak, eta gizarte-mugimendu adierazgarrien agerpen eta adierazpen iraunkorra.

Gehiengoaren eta zeharkako gizarte-borondateak

Inkestak gehiengoaren iritzi-joerak ezagutzeko bide bat dira, are gehiago denboran zehar modu egonkorrean baieztatzen badira. Nolanahi ere, gizartea harreman zuzenaren eta hurbiltasunaren bidez ezagutzeak aukera ematen du, halaber, gehiengoaren zeharkako gizarte-borondate iraunkorrak argi eta garbi identifikatzeko. Gizarte-adostasun horiek, kontuan hartzen badira, indarkeria eraldatzeko eta haren amaiera bizkortzeko gaitasuna ekar dezakete. “Euskal kasuan”, eta demokraziaren garaian, gutxienez lau gizarte-adostasun handi egon ziren beti.

- Indarkeriari ez. Egindako azterketa demoskopikoen serie luzeenaren arabera (Elzo), ETaren indarkeriaren berriazko babesa inoiz ez zen % 5etik gorakoa izan. Gehienak terrorismoaren aurka egon ziren beti. Jarrera hori gero eta modu esplizituagoan eta biziagoan adierazten hasi zen kalean, 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera. Aldi berean, biktimizekiko elkartasunaren berriazko eta gehiengoaren kontzientzia hazi zen.
- Bai, giza eskubideei. Euskal gizarteak une oro baztertu zuen Estatuko estamentuen indarkeria ez-zilegia edo terrorismo paraestatala, ETaren terrorismoari aurre egiteko bitarteko gisa. Bakearen aldeko borroka zuzenbide-estatu baten ezaugarri diren giza eskubideak eta printzipioak eta prozedurak errespetatu behar zituen.
- Bai, elkarrizketari. Euskal gizarteak beti nahiago izan zituen elkarrizketa-bideak, indar handiagoz lau-rogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera, garai hartan nazioarteko gatazka garrantzitsuak bideratu baitziren metodo horren bidez. Elkarrizketaren aldeko apustu soziala zehazten eta bereizten joan zen, indarkeriaren amaierarako eta gai politikoei heltzeko.
- Bai, bizikidetzari. Eguneroko bizimoduan eta eguneroko erabakiak hartzeko moduan, euskal gizarteak argi eta garbi adierazi zituen bere aukerak. Gehien-gehienek aniztasuna eta printzipio demokratikoak errespetatuko zituen bizikidetzaren aldeko apustua egiten zuten. Horrela adierazi zen hauteskunde-hitzordu bakoitzean, eta horrela erantzun zuen inkesta bakoitzean.

Lau gako horiek argi eta garbi definitzen dute euskal gizarteak oraina eta etorkizuna eraikitzeke duen lehentasuna eta aukera adierazi zituen esparrua.

Gizarte-mugimendu garrantzitsuen adierazpen iraunkorra

“Euskal kasuaren” ezaugarrietako bat eragin handia izatea lortu zuten gizarte-erakundeak ugaritzea izan zen. Aurreko puntuan deskribatutako errealitate sozialaren ondorio izan zen hori. Gizarte-mugimenduek herritarren ondoezaren eta haien helburu sentitueneen isla izan ziren. Dozenaka gizarte-mugimendu izan ziren, batzuk iragankorragoak eta beste batzuk iraunkorragoak. Guztiek nabarmendu nahi izan zuten puntu estrategikoren bat. Aukera hori lau indargune handitan egituratu daiteke: biktimak, ETA, elkarrizketa eta giza eskubideak.

- Terrorismoaren biktimen indargunea. Elkarre, plataforma eta fundazioen talde batek ETaren terrorismoaren biktimen abandonua salatzea eta egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak aldarrikatzea izan zuen bere jardunaren ardatz nagusia, baita haiekiko elkartasuna adieraztea ere. Erakunde adierazgarriena eta jarduera honetan denbora gehien iraun duena Terrorismoaren Biktimen Elkarre (AVT) izan da.
- ETaren salaketaren indargunea. Elkarre beste multzo handi bat da herritarrek kontzientziatzea eta mobilizatzea sustatu zuen ETaren atentatu edo bahiketa bakoitzaren aurrean. Hori izan zen indargune nagusia, baina ez bakarra. Halaber, bere agendako lehentasunetan egon ziren biktimak edo Estatuak giza eskubideak urratu izana salatzea. Bakearen aldeko Koordinakundea izan zen indargune horren gizarte-mugimendu iraunkor eta esanguratsuen.
- Elkarrizketaren defentsaren indargunea. Gizarte-mugimenduen beste korrante batek elkarrizketaren defentsan jarri zuen arreta nagusia. Aurreko kasuan bezala, hori ez zen izan bere helburu bakarra. ETaren atentatu bakoitza salatzea, biktimak aitortzea eta Estatuak estamentuek eragindako giza eskubideen urraketak salatzea ere egon ziren bere lehentasunen artean. Esparru horretan, erakunderik bizitza luzekoena Elkarri izan zen, eta, honen ondoren, Lokarri.
- Giza eskubideen indargunea. Laugarren eremu horretan kokatzen dira nagusiki Estatuaren indarkeria salatzean jardun zuten gizarte-erakundeak. Haietako asko, ez denak, ezker abertzalearen inguruan egon ziren. Beste batzuen adierazle nagusia Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarre izan zen, eta giza eskubide guztiak eta biktima guztiak defendatu zituzten, nahiz eta Estatuaren indarkeria ez-zilegian jarri zuen arreta nagusia.

Elkarre bakoitzak eta elkarre korrante bakoitzak mezu ñabartu bat adierazi zuen, baina denek, oro har eta laburbilduta, agerian utzi zituzten ondoeza eta aldaketa globalaren eskakizuna. Adierazpen horietako bakoitza egiaren zati bat izan zen, ez nahitaez simetrikoa eta distantziakidea. Jarduera horrek haustura soziala eta liskar zibila saihesten lagundu zuen.

Nolanahi ere, ezinezkoa izan zen guztien artean edo gehiengoaren artean akordio bat lortzea, saiatu arren. 1993 eta 1994 bitartean, gizarte-mugimenduen arteko elkarrizketa-prozesu bat garatu zen. Prozesu hori 1993ko maiatzaren 15ean hasi zen Arantzazuko Santutegian, eta 1994ko urtarrilaren 15ean amaitu zen Maroñon. Jarrerak hurbildu ziren, baina ezinezkoa izan zen akordioa lortzea.

Hasiera-hasieratik, euskal herritarrek modu desberdinetan eta zalantzarik gabe adierazten zituzten indarkeriazko bideak baztertzeko gehiengoaren borondatea ordezkatu eta errespetatu nahi izan zuen gizarteari entzun behar izan zioten ETak eta haren mundu politikoak.

Ekintza politikoak eta instituzionalak hobeto interpretatu behar zuen, modu osoagoan, gure herriko gehiengoaren borondate sozialaren esparru bateratua: ETari ez, bai elkarrizketari, bai giza eskubideei eta bai bizikidetzari. Ziurrenik, borondate sozial horien inguruko batasun politiko handiagoak ondorio hobek izango lituzke.

Gizarte-mugimenduak euskal gizartearen borondate sozialaren eta pluralismoaren adierazpena izan ziren. Bakegintzan eta normalizazioan oso zeregin garrantzitsua izan zuten. Hala ere, gehien arteko oinarritzko akordioa ezinezkoa izan zen. Beharbada, lortu izan balitz, haren funtzioa are erabakigarriagoa izango zen. Akordio horrek hobeto ordezkatuko lituzke gizartearen gehiengoaren zeharkako borondateak.

Azken batean, "euskal kasuak" erakusten digu ez direla gutxietsi behar gizartearen gehiengoaren zeharkako iritziak, ez eta horiek indarrez sortzen, irauten eta iritzi horiek berresten dituzten gizarte-mugimenduak ere. Gizartearen gehiengoaren zeharkako borondateek etorkizuna nondik datorren adierazten dute, eta ahalmen eraldatzaile handia dute. Berriro hasterik balego, agian, gizartea hobeto entzuten saia liteke.

IV.5. Indarkeriaren agendaren aurrean... politikaren agenda

Ikuspegi hori beharrezkoa da, ETAREN indarkeria hainbat hamarkadatan luzatu zelako eta biktimentzat eta gizartearentzat amaiezina bihurtu zelako. Haren amaiera aldaketa historikoa izan zen, zalantzarik gabe, baina ez zen garaipena izan, beranduegi iritsi zelako. Amaiera berantiar horren ardura ETARENA eta babesaren eman ziotenena da.

Nolanahi ere, geure buruari galdetu behar diogu zer egin zezakeen hobeto ekintza politikoak eta instituzionalak. Berriz hasteko aukera bagenu, zer aldatuko genukeen, zuzenduko genukeen, mantenduko genukeen edo are areagotuko genukeen. Ildo horretan, aktibo batzuk eta hobetzeko marjina batzuk identifika ditzakegu.

Ekintza politiko eta instituzionalaren aktibo positiboak

Ekintza politiko eta instituzionalak esperientzia positiboak eta erreplikagarriak osatzen dituzten jarduerak izan daitezke. Zehazki, hiru adibide positibo eta ikaskuntza nagusi bat.

- Ekintza politiko-instituzionalak beti gaitzetsi zuen ETAREN indarkeria. Baita kontrako zeinua duten beste erakunde terrorista batzuen ere. Lehen aktibo positiboa izan zen. Indarkeriaren gaitzespen-mezua –nondik zetorren begiratu gabe– argia eta partekatua izan zen, ezker abertzalearen kasuan izan ezik, ETA ez baitzuen inoiz kondenatu. ETAREN aurkako lehen mobilizazioak, hain zuzen ere, alderdi politikoek deitu zituzten 1978an.

